hiruka
208. zenbakia
2024ko ekaina




SOPELAKO EHUNGINTZA EGUNA

Ehungintza: tradiziotik ahalduntzera

MUXIKBARRI

EKAINA>UZTAILA

ZINEMA



GAURIK LABURRENA

Film laburren emanaldia

EKAINAK 25 ASTEARTEA
20:00/Sarrera gonbidapenez

ANTZERKIA



ERREKA MARI

Doña Perfectita

Zuz.: Javier Liñera
Aktorea: Egoitz Sánchez

EKAINAK 27 OSTEGUNA
19:30/10 €/60 min

MUSIKA



HANFRIS QUARTET & MUSIKALIA

Desbandada

Zuz.: Ane Legarreta

EKAINAK 30 IGANDEA
18:00/8 €

MUSIKA



GETXO JAZZ 2024

UZTAILAK 3>7
21:00/Sarrerak salgai

94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus

SALMENTA
- Romo Kultur Etxea
- Muxikebarri
- Kutxabank sarea

Sarreren salmenta: Venta de entradas: www.kutxabank.es
Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio

Aurkibidea

4 **Puntua eta kontrapuntua**

5 **Erretratua**

6 **Uribe Kostako ehuleen sarea**

10 **Herriak**

18 **Ibilaldiko kronika, San Nikolas ikasleen eskutik**

20 **Hirudika: Umore Azoka**

24 **Berbetan: Juan Luis Haro eta Zipiriñeko ikasleak, *Aita Mari*ren aldeko azoka solidarioaz**

28 **Agenda**

30 **Lehen/orain eta Uribitakora**

31 **Musikhariak: La Tokokera**

32 **Lemoizko Lurretik Hormara pintura lehiaketa**

33 **Gorriaz dokumentala, hilekoa ikusarazteko**

34 **Iritziak eta Horoskopoa**

35 **Usategi**

36 **Kirolak**

37 **Getxo Rugby taldea, Iberdrola Ligara salto**

38 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**

40 **Faceguk: Zein da Uribe Kostako zure txokorik kutunena?**

41 **Mundukatuak**

42 **Aitormenak: DJ Bull**

43 **Zozketak**




5

«Oso margolari eklektikoa naiz, beti mugimenduan»



Harilkadaz harilkada, Uribe Kostako ehuleak saretuz doaz 6



24

«Diruari esker jende gehiago erreskatatu ahal izango dute»



37

Getxo Rugby taldeko emakumeen senior taldea Iberdrola Ligara igo da

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Koldo Tellitu, Leire Zorraquin, Maitane Nerekan, Guillermo Malaina eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu

Leioa Udala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua

Sopelako Udala

Plentziako Udala

Urdulizko Udala

Gorlizko Udala

Barrikako Udala

Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Polizia-eredua



KOLDO TELLITU Abokatua eta idazlea

Azkenaldian sektore ugarik uste du indarrean dagoen polizia-eredua aldatu behar dela. Honekin bat datozenak eta aldaketa aldarrikatzen dutenak bai ausartzen dira nahi duten ereduaren ezaugarri nagusiak adierazten. Baina ia inor ez doa haratago. Ia inork ez du sakontzen eredu berri horren ezaugarrietan. Inork ez du adierazten munduan zein den bere erreferentzia.

Eredu horrek niretzat izan beharko lituzkeen ezaugarri batzuk aipatzera ausartuko naiz: euskalduna eta gertukoa bai, baina baita herritarron eskubideen defentsa irmoa egiten duena, errespetuz tratatzen gaituena, suzko armarik gabe (foam/taser barne) indarraren neurriko erabilera egiten duena, teknikoki gaitua eta kapitalaren delituak jazartzeko borondatea duena...

Oraindik ere zalantzak ditut elementu garrantzitsu batzuen inguruan. Hau da, mota guztietako delituei aurre egin behar al die? Disidentzia politikoa kontrolatzeko zerbitzu sekretua eduki behar du? Nolako harremana izan behar du botere judizialarekin? Azken finean, polizia-eredu zehatzaz gain, uste dut poliziaren zereginari buruzko eztabaida sakonagoa dagoela. Honi lotuta, ezinbesteko beste eztabaida batzuk: kartzelarena eta sistema judizialarena, justizia herritarra bai, baina nola...

Edertasuna *dub*



LEIRE ZORRAQUIN Sutea talde feminista

Uda heltzear dago, eta gehienek gogoekin hartzen badute ere, sekulako erronka suposatzen du beste hainbatentzat. Egun eguzkitsuekin batera armairu aldaketa dator, baina ez da sekretua denontzat ez dela erraza praka motzak edo bainujantzia janztea. Sasoi berotsuetan aurre egin behar izaten zaie neguan nolabait iskin egiten zaien konplexuei.

Bat-batean hutsik zegoen plazan bi bozgorailu agertzen dira *sound systemetan* bezalako ozentasunean. Batean «bikini operazioarekin» lotutako aholku samingarriak baino ez dira entzuten, bestean, «onartu zaitez». Berdin dio zein agertokitan egiten duzun dantzan, bestea aukeratu dutenek beti izango dute zerbait zure kontra esateko: batzuek gorputz onartezina daukazula, eta besteek funtsik gabeko eta konplexuz betetako pertsona zarela.

Estetika pisu jasanezina izan daiteke, dirua eta denbora luze inbertitzera eramaten gaituena altzairu herdoilgaitzezko soineko horretan sartzen, prozesuan osasuna sakrifikatu behar badugu ere. Alabaina, bide horretan egindakoak ez dira erabaki isolatuak. Edertasuna pribilegio-zapalkuntza ardatza da, eta emakumeok oztopo gehiago ditugu alde abantailatsura igarotzeko.

Puntua eta kontrapuntua **Ehuleen tradizioa bizirik dirau**

Tradizioz bizirik



Oroitzen dut amama
Maria jostuna,
mimoz lantzen zuena
haria, ehuna.
Tradizioz bizirik
izan den jarduna
haria etenda; hel
daiteke eguna,
belaunaldi berriok
gal dezakeguna.

PAULE LOIZAGA LEGARRA
Sopela

Autosufiziente
(a zelako martxa!)
zen amama Maria
sasoi hartan, antza.
Paule datorrenagaz
baduzu zalantza.
Dena den, zuk geroan
izan konfiantza:
har ditzagun titare,
hari ta orratza.

IÑIGO KORTAZAR ELIAS
Algorta

ALBE Algortako Bertsolari Eskola



Alberto Zeballos Margolaria

«Oso margolari eklektikoa naiz, alde batetik bestera mugitzen naiz»



Margolari emankorra da Alberto Zeballos getxoztarra. Bere bilduman hainbat estilo eta gairen inguruko 500 margolan baino gehiago dituela dio.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA**

Istripu larri bik markatu dute Alberto Zeballos getxoztarraren bizitza. Horien eraginez, baliaezintasuna aitortu zioten, baina aitortu du horri esker bere pasioa den pinturari gura beste denbora eskaintzeko aukera izan duela. Gaztetan, bera argazkilari moduan aritu zen lanean hainbat komunikabiderentzat, besteak beste, intsumisoen mugimenduko argazkiak ateratzen; horien manifestazio batean poliziaren ke-pote batek buruan jo zuen. «Hori nire inflexio puntuetako bat izan zen, dena berriz ere ikasi behar izan nuelako, baina horrek eraman ninduen artearen mundura», gogoratu du.

Oso egile emankorra da eta urtean hainbat estilo ezberdinetako margolanak egiten ditu. «Nire pintura nahiko espresionista izan da beti, baina heldu da puntu bat figuraziora ailegatu naizela, eta orain erretratua ere asko lantzen dut». Lagunentzako edo enkarguz hainbat erretratu egin ditu eta, horietan, fotomuntai modukoak ere egiten ditu, erretratuak eta paisaiak konposatuz. «Publizitatean aritu nintzenean lanean *Tijeritas* deitzen ninduten; orain, pinturaren errekortalari bat bezalakoa naiz, kar-kar-kar». Bere azken urteotako lanen bildumari erreparatuz, askotariko lanak aurkitu daitezke, margolan abstraktuak, paisaiak, erretratuak... «Ez zait gustatzen mugarik jartzea, ikusten ditudan gauzak margotzen ditut; adibidez, argazki historikoetan oinarritutako margolanak egitea ere interesatzen zait, fotoerrealismoak erakartzen nauelako».

Margolaria izateaz gain, musikaren munduan ere bere pintzeladak eman ditu, 80ko hamarkadan hainbat talderen laguntzaile aritu baitzen, besteak beste, Itoiz taldean. «Nik zale moduan egiten nuen, ez naiz musikaria, margolaria baizik». Hala ere, pandemian, bere 20 abestiko disko propioa ere autoeditatu zuen, «nik grabatu nituen ahotsa, gitarra, pianoa eta akordeoia».

Harilkadaz harilkada, Uribe Kostako ehuleak saretuz doaz





IÑAKI DIEZ. UK FOTO

Tradizio luzeko jarduera da ehungintza, belaunaldiz belaunaldi nagusiki emakumeek gauzatutakoa. Batzuen aburuz, artea ere bada. Iraganeko ekintza dirudien arren, hori berpizteko erronka dute Uribe Kostako ehule askok. Horren adibide da ekainaren 2an Sopelan egindako Ehungintzaren Eguna.

TESTUAK: **NAHIA MARTINEZ GONDRA**
ARGAZKIAK: **HODEI TORRES · AMAIA AGUNDEZ PEREZ** ▶

Ehungintzan pentsatzean, askori burura etorriko zaie antzina etxeko ateen aurrean biltzen ziren amamen iruditegi nostalgikoa. Alabaina, askoren bizitzak zeharkatzen dituen jarduera izaten jarraitzen du gaur egun ere. Izan ere, Espe Etxeandia sopeloztarrak, Paqui Edejon itzubaltzetarrak eta Maribe Legarreta barrikoztarrak badute lotzen dituen hari sendo bat: ehungintzaren pasioa eskualdera zabaltzeko guraria. Uribe Kostan dauden hiru ehungintza talderen parte dira, eta bakoitza herri batekoa izan arren, guztiek dute argi jostea «amamen kontua baino askoz gehiago» dela.

SOPELAKO EHULEAK. Pandemian jaio zen Sopelako taldea. Bertako kideek pentsatu zuten bakarrik josten egon beharrean, hobe zela taldeka euren ezagutzak partekatzea. Hala, eguenero gelditzen hasi ziren, udalerriko Kurtzio kultur etxean. 20 emakume dira, 20-70 urte-tartekoak. Horien artean daude Espe Etxeandia, Zuriñe Castañeda, Miren Garai eta Monica Tejeda.

Denak emakumeak izan arren, oso arrazoi ezberdinengatik hasi ziren taldean. Espe Etxeandia (70 urte) Lankidetzarako Garapenean ibili da luzaroan militante eta langile gisa, eta ehungintza eraldaketarako gizarte-tresna dela uste du. Hiru urte eman zituen Nikaraguan gerraostean, eta oraindino harremana du Guatemalako emakumeakaz ere. «Ehuntzea euren kulturaren zati nagusietako bat da, orduan, nire asmoa zen horko talderen bategaz senidetzea, baina xede hori pixkanaka garatzen joan behar gara. Polita eta aberasgarria izango litzateke beste herriekiko enpatia eta elkartasuna sortzea», aitortu du.

Zuriñe Castañedak (46 urte) gogoan ditu bere haurtzaroko irudietan bere ama eta amama, biak batera ehuntzen. Berari amak erakutsi zion, baina gero luzaroan alde batera utzi zuen, bera ere ama izan zen arte. Egun, seme-alaba bi ditu eta lan egiteari utzi zion horiek jaiotzerakoan. «Haur txikiakaz ama



Itzubaltzeta/Romoko ehuleek Aspanovas elkartea laguntzen dute.



20 emakume inguruk osatzen dute Sopelako ehuleen taldea.

zarenean pertsona gisa duzun nortasuna pixka bat galtzen duzu. Orain, berriz, nire burua topatzen ari naizela sentitzen dut: euskara klaseetara noa, ehuntzen eta kakorratza egiten ikasten ari naiz...». Hala, taldeak «babesa eta poza» ematen dio.

Sopelako taberna bateko jabea da Monica Tejeda (60 urte). Bere amak ehungintzako denda bat zuen, horregatik, txikitatik beti ikusi izan ditu etxean oihalak eta josteko makinak. Aitortu du egun taldean ehuntzen igarotzen dituen momentuak direla lanaz ahazteko dituen une bakarrak, ostalaritzan lan egitea «oso gogorra» baita. Eguenak dira berarentzako «erabat deskonektatzeko» unea, hainbeste behar duen lasaitasuna sentitzen duelako bere kideakaz berba egiterakoan.

Gaixotasun batzuen ondorioz lan egiteari utzi zion Miren Garaik (55 urte) duela 14 urte, eta orduan hasi zen ehuntzen. Bere lagun guztiak lanean jarraitzen zutenez, bakarrik gelditzen ari zela sentitu zuen. Horregatik, *patchwork*-era apuntatu zen, eta joan den urtetik Sopelako ehuntzaileen taldean ere badago. Pozarren azaldu du oso talde «anitza» dela, eta berarentzako beste edadeko lagunakaz harremantzeko aukera dela.

ITZUBALTZETA/ROMOKO EHULEAK. Paqui Edejon (70 urte) duela 4 urte sartu zen Itzubaltzeta/Romoko ehungintza taldera, jubilatu zenean. 16 urtegaz ikasi zuen ehuntzen eta josten, eta haurrentzako denda batean lanean ere egon zen. «Hor bai izan behar nuela fintasuna», oroitzen du. Gaur egun, 12 emakumek osatzen dute taldea, eta zaharrenak 93 urte ditu. Romo Kultur Etxean batzen dira astero, eta ondo pasatzeaz gain, xede solidario bati jarraitzen diote: haurrentzako arropak egin, horiek saldu eta dirua Aspanovas elkarteari ematen diote, minbizia duten Bizkaiko haur eta



«Tradizioz emakume kuxkuxeroen gauzatzat ikusi dena kultura eta arte bilakatu gura dugu. Iraganeko iruditegi hori desitxuratu gura dugu»

ESPE ETXEANDIA
SOPELAKO EHULEA



«Nire 10 urteko semeak josketa klaseak ditu eskolan, eta oso pozik dago. Berak ez du jarduera hori nesken gauza gisa ulertzen»

ZURIÑE CASTAÑEDA
SOPELAKO EHULEA

nerabeen elkarteari. «5.800 euro inguru eman ahal izan dizkiegu», baieztatu du Edejonek.

Hala, taldeak egun ederrak zein goibelak ematen dizkiola aitortu du, «taldeko norbait sufritzen ari dela ikusten duzunean, eragiten dizulako». Era berean, taldeari esker bere pentsamendua ireki eta bere mundutik atera dela uste du, «bestela bakoitza bere etxean egongo litzateke, giltzapeturik». Oro har, auzoko jendea ezagutzeko eta lagunak egiteko bidea izan da berarentzako.

BARRIKAKO EHULEAK. Maribe Legarreta Barrikako Emakumeen Hitza Elkarteko zuzendaria da. Elkarte horri esker sortu ziren Barrikako ehungintza eta josketa klaseak, duela 10 urte, «emakumeak elkar ezagutzeko eta hurbiltzeko» xedeagaz. Emakumeen ahalduntzea jorratzen dute, eta nabarmendu du ehuntzeak euren osasuna ere hobetzen duela: «Erlaxagarria da eta, aldi berean, gure garuna sasoian mantentzen du». Klase horien irakaslea da Maria Gonzalez (57 urte), eta, egun, ehuntzea, bere lana izateaz gain, bere hobbya izaten jarraitzen duela baieztatzen du.

Era berean, taldeko guztiak oso lagunak direla dio, eta norbait berria heltzen denean, guztiak ahalegintzen dira pertsona hori gustura sentiarazten. «Niretzako erreza da klaseak ematea, guztiak euren artean laguntzen direlako. Sozializatu eta barre asko egiten dute», azaldu du.

EMAKUMEEZ HARATAGO. Garaiak aldatu arren, ehuntzea emakumeei egozten jarraitzen zaien jarduera dela dirudi. Amek alabei utzitako oinordekotza. Tejeda sopeloztarrak dionez, amak ehungintza denda izan arren, berak eskolan ikasi zuen josten eta ehuntzen, mutilengandik bereizita: «Mutilek marketeria egiten zuten eta neskok etxeko-lanak».



Duela 10 urte sortu zen Barrikako ehuleen taldea.

Hala, Etxeandiak nabarmendu du Sopelako taldearen helburuetako bat dela ikusaraztea ehuntzea arte bat gehiago dela: «Tradizioz emakume kuxkuxeroen gauzatzat ikusi dena kultura eta arte bilakatu gura dugu. Iraganeko iruditegi hori desitxuratu gura dugu».

Halere, Castañeda sopeloztarrak dionez, gauzak apurka-apurka aldatzen ari dira: bere 10 urteko semeak josketa klaseak ditu eskolan, eta oso pozik dago horiekaz. «Berak ez du jarduera hori nesken gauza gisa ulertzen, nagusiak dira horrelako ideiak mantentzen dituztenak», adierazi du. Halaber, Legarretak baieztatu du Barrikako klaseetan gizonezkoak ere izan dituztela inoiz, nahiz eta egun guztiak emakumeak diren. Horregatik, ekainaren 2an Ehuntzaileen Eguna antolatu zuten Sopelan, eskualdeko lagun berriak ehungintza mundura batzeko helburuagaz.

SARETZEKO TOPAGUNEA. Sopelako ehuntzaileen taldeak izan zuen ardura Ehuntzaileen Eguna antolatzeko. Ekimen horren bidez, ehungintza ikusarazi eta indartu gura izan zuten, «ehuleak etxeetatik ateratzeko eta gune publikoak okupatzeko». Hala, 10:30etik 14:30era ehuntzen egon ziren, Sopelako Bentatxu kaleko arkupeetan. Bertan, eskualdeko hainbat ehule batu ziren, euren arteko sarearen hasiera ehuntzen hasteko gogoakaz. Gainera, topaketak helburu bikoitza zuen: alde batetik, ehuntzaileak batzea eta, bestetik, Sopelako egoitzako emakumeak laguntzea. Izan ere, ehuntze-goiz horretan parte hartu zuen lagun bakoitzak karratu bana egin zuen, gero horiek elkartuz mantak egiteko eta egoitzako emakumeei emateko.

Hala, hariz hari, edade ezberdineko lagunak saretuz doaz, antzinako jarduera berezi honi zentzu berri bat emateko asmoagaz. ◂



«Amak ehungintza denda izan arren, nik eskolan ikasi nuen ehuntzen. Mutilek marketaria egiten zuten eta neskok etxeko-lanak»

MONICA TEJEDA
SOPELAKO EHULEA



«Niretzako erreza da klaseak ematea, guztiak euren artean laguntzen direlako. Sozializatu eta barre asko egiten dute»

MARIA GONZALEZ
BARRIKAKO EHULEEN IRAKASLEA



Remy Basterra barrikoztarra, 1980an.

Amaia Agundez Perez Barrikako ehuleen taldeko kidea da, eta irudian ageri den emakumea bere amama zen, Remy Basterra. Agundezengatik jakin dugu Basterrak unibertsitatera joateko ametsa zuela, baina bera baino nagusiagoak ziren nebak zituenez, emakume gisa ezin izan zuen bere guraria bete. Garai horretan, soilik gizonezkoak joan ohi ziren unibertsitatera. Irakurzale amorratua zen eta frantsesa ikasi gura zuen, baina bere amak josketa tailer batera apuntatu zuen. «Ez zuen jostea batere gustuko. Ordea, ehuntzea maite zuen eta oso trebea zen horretan», gogoratzen du Agundezek. Bere amamak bederatzi seme-alaba izan zituen, eta denentzako «jertse lodiak» egiten zituen. «Aurreko egunean berak egindako mendiko jertse bat topatu genuen, eta oraindino ere, egoera ezin hobean dago. Nire amamaren oso oroitzapen polita da», nabarmendu du, pozik. Hala ere, bere alaba txikienari soilik irakatsi zion ehuntzen Basterrak, bere seme-alabek bestelako ikasketa batzuk egin zezatela gura zuelako. «Guztiak unibertsitatera joatea gura zuen, emakumeak batez ere», baieztatu du bilobak. Hala, bere alaba txikienari ehuntzen erakusten zionean, gauzak astiro egin behar zirela errepikatzen zion, horiek ondo egiteko. Askotan esan ohi zuen esaldia gogoratu du Agundazek: «Egitearen eta desegitearen artean, egiteko asko dago».

Getxo Gazte baten hilketa

Xenofobia eta gorrotoa hauspotzeko aitzakiarik ez bilatzeko eskatu dute

Joan den maiatzaren 25eko gauean, 23 urteko gazte bat hil zuten labankadaz, Algortan. Hilketa horri lotuta, bost gazte atxilotu dituzte, eta horietatik, lau adingabeen zentro batera eraman dituzte. Gertakizun horrek hautsak harrotu ditu udalerrian, eta ez dira gutxi egunotan kaleetan eta sareetan zabaldutako xenofobiaz, gorrotoaz eta arrazakeriaz betetako mezuak geldiarazteko egindako adierazpenak. Adingabeen Fiskaltzak berak gezurtatu zuen ustezko hiltzaileak adingabe magrebtarrak direnik, eta Getxoko Udalbatzak eskatu zuen «inoiz baino batuago» egon behar direla herritarrak, eta ez dela gertakaria baliatu behar diskriminazioa hauspotzeko. Ildo horretako eskaera egin dute tokiko hainbat gizarte-eragilek ere. ◂

Getxo Ordenantza aldaketa

Hondartzetan txakurrak aske ibiltzeko ordutegia luzatu du Udalak udan

Txakurrak hondartzetan aske egoteko ordutegia zehazten duen araudia aldatu du Getxoko Udalak. Hala, ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean, txakurrak 20:00etatik hurrengo eguneko 09:30era arte egon ahal izango dira udalerriko hareatzetan, Gorrondatxen eta La Bolan izan ezik «ingurumen arrazoiengatik»; urriaren 1etik maiatzaren 31ra, aldiz, ez da ordu-mugarik egongo txakurrak solte egoteko. ◂

Getxo Lan-hitzarmen duin baten alde

Jaurlaritza arituko da bitartekari gisa lorezaintzako gatazkan

Lan-hitzarmen duin baten alde hilabete bi greban egon ostean, Jaurlaritzak bilera deitu du ekainaren 10erako enpresagaz, ELAgaz eta lorezaintza-zerbitzuko langileakaz.

Ekainaren 10ean batuko dira Getxoko lorezaintza zerbitzuaren esleipenduna den Getxo Lorategiak ABEE enpresako, Eusko Jaurlaritzako, ELA sindikatuko eta greban dauden langileen ordezkariak. Daborduko hilabete bi baino gehiago daramatzate beharginek greban, lan-hitzarmen duin baten alde, eta, besteak beste, kexu izan dira tarte horretan ez dutela ez enpresaren ez Udalaren deirik jaso biltzeko. Orain, hitzordu horren bidez, Jaurlaritza bitartekari arituko da lan-gatazka bideratzeko.

Hilabete bi baino gehiago igaro da lorezaintza zerbitzuaren esleipenduna den UTE Getxo Lorategiak enpresako langileek greba mugagabea abiatu zutenetik, eta maiatzaren akabura arte ez dute lan-gatazkari irtenbidea emateko solaskideren berririk izan. Grebalariek HIRUKA-ri baieztatu diotenez, Eusko Jaurlaritzako ordezkari batek alde guztiak deitu ditu ekainaren 10erako, bitartekari gisa. «Albiste pozgarria da, irtenbide bat topatzeko aukera dugulako aurrean», azpimarratu dute langileek. Grebalariek gogoratu dutenez, azken urte bietan KPIaren bost puntu eta erdi galdu dituzte, eta, berrikuspenean, % 2,25eko igoera proposatu zieten, iaz KPIa % 3,1 izan zenean. Berdinketa hori eskatu zuten, eta, egungo egoera ikusita, deitoratu dute ez dutela ulertzen % 0,85eko soldata igoeraren aldeagatik iritsi izana negoziazioaren blokeo honetara. Hala, hilaren 10eko bileran, KPIagaz bat datorren hitzarmena sinatzea eskatuko diote langileek enpresari, «aparteko ordainsarietan inolako deskonturik gabekoa», azpimarratu dute. ◂



Apirilaren 2an abiatu zuten greba.



Leioa San Juan jaiak

Jaiak azken sugarrera arte ospatzeko prest

Ekainaren 20tik 24ra ospatuko dituzte Leioako sanjoanak. Aurretik, 15ean, Antzinako Eguna izango dute.

Urtero legez, barrakak izango dira jaietako lehen hitzordua, aurten ekainaren 14an jarriko baitituzte martxan. Ordutik aurrera, eta San Juan suko garrak itzali arte, hamaika ekintza prestatu dituzte leioaztarrek ederto pasatzeko aitzakiarik izan ez dezaten.

Ekainaren 20an, aurtengo txupina botatzeaz eta pregoia irakurtzeaz arduratuko diren Mari Pepa eta Arlote izango dira GKG kuadrillako ordezkariak. Horregaz batera, kuadrillen jaitsiera egingo dute, eta txosnak ere irekiko dituzte.

Eskaintza musikalari dagokionez, euskal musikagintzako izen handiak egongo dira aurtengo kartelean: Esne Beltza, Doctor Deseo, Travelin' Brothers, Gozategi, Ibil Bedi eta Los Zopilotes Txirriaos, beste askoren artean.

Berrikuntza gisa, aurten, hainbat elkartek tren-maketen, kotxe deskapotableen eta motorren erakusketa bat ere antolatuko dute Kultur Leioako anbiguan eta Jose Ramon eta Errekalde plazetan. Gainera, Azulito autobus mitikoa ere ikusgai egongo da Jose Ramon Aketxe plazan. ◂

Egitarauko aipagarriena

Ekainak 14, barikua

19:00 Barraken irekiera, Iturriondo aparkalekuan.

Ekainak 15, zapatua

10:30 Antzinako Eguna. Barandiaran Behekoa Institutuan, Paella Txapelketan eta herri-jokoetan izena ematea.

Ekainak 16, domeka

12:00 XXII. Jota Txapelketa, udaletxeko plazan.

Ekainak 20, eguena

19:00 Pregoia eta txupinaren jaurtitzea: Mari Pepa eta Arlote, udaletxean.

19:00 Kuadrillen jaitsiera eta txosnak irekitzea, Elexalden.

23:00 Kontzertuak: Esne Beltza eta Guda Dantza.

01:00 Musika: Pary & Tiza, txosnagunean.

Ekainak 21, barikua

12:00 Umeentzako ekintzak, Errekalde plazan.

20:00 Euskal Kirolaren Gala, Euskal Etxeen plazan.

21:00 Kontzertuak: Marmara, Ibil Bedi eta Los Zopilotes Txirriaos, txosna-gunean.

23:00 Kontzertuak: Doctor Deseo eta Hoax Attack, Lehendakari Agirre plazan.

Ekainak 22, zapatua

17:30 Sokatira: Euskadiko Lur Gaineko Txapelketa, Udondo bulebarrean.

22:00 Kontzertuak: Nerbio Bulkada, Toc eta Gozategi, txosna-gunean.

23:00 Kontzertuak: Travellin' Brothers eta Gonzalo Portugal.

Ekainak 23, domeka

13:00 Bertso-saioa: June Diaz, Jon Maia, Unai Iturriaga eta Maddalen Arzallus, J. R. Aketxe plazan.

18:00 Dantza erakustaldia eta erromeria, Gure Ohiturak Dantza Taldearen eskutik.

22:00 Erromeria: Bidean, txosna-gunean.

22:30 San Juan gaueko ikuskizuna, Hortzmuga konpainiaren eskutik, Boulevarden.

00:00 San Juan Gaueko Akelarrea, txosna-gunean.





Erandio Naia Gambra, genero-indarkeriaren biktimentzako arreta-zerbitzuaz

«Diziplina anitzeko zerbitzu integral eta feminista bat behar da Uribe Kostan»

Eskualdeko indarkeria genero-biktimentzako arreta zerbitzuak aztertu ditu Naia Gambrak. Dioenez, legeek erakunde publikoak derrigortzen dituzte zerbitzu integrala bermatzera.

ANDER ZARRAGA ▶



Graduondoko lana egiteko, Gambrak eskualdeko zerbitzuak aztertu ditu. HODEI TORRES

Gambrak zuzenbidea ikasi eta abokatu izateko praktikak egin ditu Bilboko laguntza psikosozialerako Auzolan Moduluan. Halaber, EHUren Indarkeria Matxistak: Sare Esku-hartzeak izeneko graduondokoa ere ari da egiten, eta horren ikerlanean Uribe Kostako indarkeriaren biktimentzako eta haien seme-alabentzako dagoen arreta zerbitzua aztertu du. «Erandioztarra izanda, pentsatu nuen auzokide bat hurbilduko balitz esanez indarkeria matxista egoera batean dagoela, zein zerbitzutara bideratu beharko nuke?». Galdera horri erantzuna ematea abiapuntutzat hartuta, eskualdeko zerbitzuak aztertzen hasi zen.

«Bai nazioarteko Legediak, bai Espainiako Estatukoak, baita EAEkoak ere, aitortzen dute emakumeek arreta integral eta espezializatua jasotzeko eskubidea dutela eta erakunde publikoak direla hori bermatzeko erantzukizuna dutenak», azpimarratu du Gambrak, eta gaineratzen du «horiek orokorrak, zehatzak eta espezializatuak» izan behar direla.

Hala ere, erandioztarrak deitoratu du zerbitzu horietara laguntza eta aholku bila doazen emakumeek ez dituztela genero ikuspegia duen zerbitzurik ezta formakuntza espezifikoa duten profesionalak aurkitzen: «Tokiko erakundeetara joanez gero, ikusi dut Erandion bakarrik dagoela arreta psikologiko espezializatua. Beste udalerrietan badago aholkularitza-zerbitzua, baina horitan ez da genero ikuspuntua bermatzen, eta horietan berbiktimizazioa eragiten du».

> Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta integrala eta espezializatua jasotzeko eskubidea aitortzen die Legediak, hala nola Europako Kontseiluaren Istanbulgo Hitzarmenak eta 1/2004 Lege Organikoak.

Bere azterlanean ohartarazi du «diziplina anitzeko zerbitzu integral eta feminista baten beharra dagoela». Zerbitzu horrek bere gain hartu beharko luke arreta integrala: psikologikoa, gizarte-langintza, aholkularitza, zerbitzu ginekologikoa, laguntza judiziala... «Gainera, formakuntza prozesu jarraituak ere izan beharko lituzke eta heziketarako tresna bat ere izan beharko litzateke, indarkeria matxista ez delako bikotekideen arteko gauza bat soilik: gizarteko hainbat esparrutan ematen da, eta guztion ardura da». ◀



E! Erandio UDALA AYUNTAMIENTO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

euskaraz BARRA // BARRA

Ikur honek establezimenduetan euskara erabiltzeko aukera bermatzen dizu

IHES GELA

17. logela

Erandion ekainak 28, 29, 30
Legazpi kalean

Baldintzak:
Euskaraz ulertzea
16 urtetik gora izatea
5 lagun gehienez izatea
Txanda webgunean erreserbatzea

Eman izena

Informazio gehiago:
Euskara zerbitzua: euskara@erandio.eus // 944 890 128
www.euskarazbarrabarra.euskadi.eus

Erandio Jaiak

Jaien karruselari hasiera eman diote Erandion

Erandiogoikoko Gorpuzti jaiakaz abiatu da Erandioko auzoetako jaien segida. Ekainaren lehen aste-akabuan ospatu zituzten horiek, baina festak ez du etenik, eta ekainaren 8, 9, eta 11n San Bernabe festak ospatuko dituzte Faoeta auzoan. Egun horietan, San Pablo eta San Bernabe baselizaren inguruan hamaika ekintza izango dituzte gozagai bertara hurbilduko direnek.

Besteak beste, hilaren 8an, herri-bazkaria, umeentzako jolasak eta kontzertuak izango dituzte, Mixerabliak, Nonbait eta DJ Calonge taldeakaz. Hurrengo egunean, Etxebarria aita-seme trikitilariak ere Faoetatik pasatuko dira eta Triskele taldeak emanaldia egingo du gauean.

Hurrengo aste-akabuan, 13, 15 eta 16an, Martiartu auzoko San Antonio festen txanda izango da. Hilaren 13a auzoko nagusientzako eguna izango da, baina, aste-akabuan, hainbat ekintza egingo dituzte auzo horretan ederto pasatzeko: umeentzako jolasak, sokatira eta Arene 6, Akainak eta Gora Herria taldeen kontzertuak, besteak beste.

Horrez gain, udako solstizioa ere handikiro ospatuko dute udalerriko auzoetan, elkarteek antolatuko dituzten ekintzei esker. Batetik, Astrabuduan, anbulatorio ondoko plazan egingo dituzte ekintzak, 18:30etik aurrera. Erandiogoikoan, Auzokoa Herrikoi Elkarteak antolatuko dituen jarduerak 20:00etan hasiko dira: tailerrak, txokolatada, bingoa... Altzagan, Gautxoriak eta Uztargi dantza-taldeek kalejira egingo dute Irailaren 23a plazatik Tartangara arte, bertan sua piztu eta udari ondoetorria egiteko. ◂

Erandio Martxoaren 11ko uholdeak

Udalak kalte-ordainak eskatzeko epea luzatuko du

Gobernu-taldeak gaineratu du uholde-arriskua aztertzeko ikerketa espezifiko bat egingo duela, kaltetutakoek neurri zehatzak eskatzen jarraitzen duten bitartean.

Daborduko ia hiru hilabete igaro dira martxoaren 11n itsasadarrak Altzagan gainezka egin eta hainbat kaletan kalteak eragin zituenetik. Hasieratik, bizilagunek erantzukizuna Bizkaiko Foru Aldundiarena izan zela salatu dute, argudiatuz All Iron zubia eraikitzeko lanen eraginez sartu zela ura kaleetara, moilaren babesa ezabatu dutelako. Hori berresteko, Amillena meteorologia elkartearen eta udal-arkitektoaren txostenak aurkeztu dituzte.

Aldiz, Aldundiak hori gezurtatzen duen Saitec ingeniaritzaren azterlana plazaratu zuen. Horrek adierazten du zubiaren lanek ez zutela zerikusirik izan eta uholdeak marea bizi historikoen eta faktore klimatologikoengatik izan zirela.

Kaltetutakoen koordinakundeko ordezkariek jakinarazi dutenez, txosten horrek adierazten du otsailean marea biziak ere izan zirela eta ez zela halako uholderik izan; «kasu bien arteko alde bakarra moilaren erretiratzea izan da».

«Hautemandako desadostasun teknikoak eta gaiaren espezifikotasuna kontuan hartuta», Erandioko Udalak azterlan zehatz bat egingo duela iragarri du, uholde-arriskua aztertzeko. Horregaz batera, iragarri du uztailaren 27ra arte zabalduko duela epa kaltetutakoek kalte-ordainak eskatzeko, izapideak egiteko egon diren arazoak direla eta. Azaldu dutenez, horretarako bideratutako 60.000 euroko partidak «aseguruek estaltzen ez dituzten kalteak arintzea dute helburu, ekarpena ez da inoiz bikoiztuko eta eskatzaile bakoitzari 1.000 dagozkio gehienez».

Euren aldetik, kaltetutako koordinakundeko kideek neurri zehatzak eskatu dituzte abuztuko eta iraileko marea bizietan uholdeak ez errepikatzeko, eta salatu dute aseguruak eta diru-laguntzak ez direla nahiko galdutakoa berreskuratzeko. Gainera, Arartekoarengana joan dira laguntza eske, «abandonatuta» sentitzen direlako, eta ez dute baztertu epaitegietara ere jotzea. ◂



Sopela San Pedro jaiak

Udari Sopelako jaiakaz hasiera emateko unea da!

Ekainaren 27tik 30era jai-giroan murgilduko dira sopeloztarrak. Betiko herri-izaera duten jai hauen aurrerapen bat dugu, Sopelako Kuadrillak taldearen eskutik.

Ekainagaz batera, hurbiltzen ari dira urte osoan zehar gazte zein helduek itxaron duten momentua: udako jaiez handikiro gozatzeko garaia! Hala, Sopelako jaiak dira eskualdeko ospakizunei hasiera emango dioten lehenengotarikoak; zehazki, ekainaren 27tik 30era ospatuko dituzte sanpedroak. Urtero legez, Sopelako Kuadrillak taldeak egitarau oparoa antolatu du herritar guztientzako. Ekintza nagusien artean ez da faltako udalerriko kuadrillen jaitsiera famatua. Gainera, tortilla eta sangria txapelketak ere egingo dituzte, norgehiagoka osasuntsuena jaki eta edari onenakaz konbinatzeko erronka abiatzeko! Horrez gainera, zantxo txapelketarentzako lekua ere egin dute programazioan, eztarriak ondo berotu eta lau haizetara irrintzirik txundigarriena nork egin duen erabakitzeko lehiaketa. Egun handia zapatua izango da, ekainaren 29a: herritarrak *hortera* jantziko dira denak batera egun tematiko horretako herri-bazkariaz disfrutatzeko. Komentatutako ekintza guztien xehetasunak eta askoz gehiago irakur ditzakezu aldamenean azaldutako egitarauan.

Sopelako Kuadrillak taldeko egitaraua

Ekainaren 27a, eguena

19:00 Kuadrillen jaitsiera.

21:00 Txupina eta txaranga txosnetaraino.

Ekainaren 28a, barikua

14:30 Tortilla eta sangria txapelketak txosnetan.

16:00 Tortilla eta sangrien aurkezpenak.

18:00 Zantxo txapelketa.

20:00 Poteo musikatua (oraindino zehaztu gabe dago zein elektrotxaranga izango den).

Ekainaren 29a, zapatua

Egun tematikoa: *hortera*

14:30 Herri-bazkaria eta bazkalostea.

18:00 Kuadrillen arteko jolasak.

20:00 Poteo musikatua.

Ekainaren 30a, domeka

12:00 Paella Txapelketa (kuadrilla guztiak berdegunean egon behar dira).

17:00 Kuadrillen jolasak berdegunean.

18:00 Kuadrillen arteko Trivial Txapelketa, txosnaguenan.

18:00 Bertso saioa eta kuadrillen arteko sari-banaketa.



Ekainaren 29ko egun tematikoaren gaia *hortera* izango da. Atera itzazue zuon jantzirik deigarrienak hitzordu horretarako!

UDALEKO EGITARAUA. Lerrook idazterakoan oraindino Sopelako Udalak ez du jaietako egitarau osoa ofizialki kaleratu; hala, hori eskuragarri izatean, hiruka.eus webgunean programazioa osorik eta eguneratuta topatu ahal izango duzue. Adi ibili! ◂

ander deuna IKASTOLA



Herriarekin eta naturarekin harremanetan

ikastolenelkartea

Berango Genero-mapa berria

Udalerrian emakumeak seguruago sentiarazi guran

Genero-mapa bat osatze aldera, martxoan abiatutako proiektuaren emaitzak aurkeztu zituen Udalak joan den maiatzaren 28an. Hilabete biko prozesuan, tokiko 102 pertsona eta hamaika eragileren iritziak jaso dituzte, eta 16 gune identifikatu, emakumeentzako seguruak izan ez daitezkeenak, «argitasun faltagatik eta gehiegizko begetazioagatik, batez ere», azaldu du Adolfo Sangroniz zinegotziak. Genero-mapa osatuta, hautemandako puntu-beltzak ezabatzeko ekintzak egingo ditu Udalak orain, «batzuk laster, erraz konpondu daitezkeelako, baina beste batzuk etorkizunean, inbertsio handia behar dutelako». Dena dela, proiektua luzera begira indarrean egongo dela iragarri du arduradunak, azterketa gehiagogaz. ◂

Uribe Kosta Metroa

Unitateak eta sistemak berritu arren, ez da maiztasuna txikituko

Metro Bilbaoren zerbitzua birdefinitzeko asmoz, metro-unitate eta sistema berriak iragarri ditu Aldundiak. Horren bidez, Bilbo aldeko 1. Lineako maiztasunak hobetuko dituzte, baina ez Uribe Kosta aldeko 2. linean, EH Bilduk eskatu bezala. Koalizioari erantzunez, Elixabete Etxanobe ahaldun nagusiak azpimarratu du teknikariek uste dutela proposatutako maiztasuna «bideraezina» dela gaur egun. ◂

Gorliz-Plentzia Osakidetzari eskaera

Alkateek udaldian osasun-zerbitzua indartzeko eskatu dute

Osasun publikoaren eta herritarrei beharrezko arreta emateko giza-baliabideak eta materialak bermatzea gura dute, udan biztanleria handitu egiten delako udalerriotan.



Plentziako osasun-zentroa, artxiboko irudian.

Joan den urteko uda sasoian osasun-zerbitzua ematen duten langile-kopuruagaz egon ziren arazoak direla-eta, udalerri bietako alkateek gutun bat bidali diote Osakidetzari, galdetzen ea udan herritarrentzako beharrei erantzuteko behargin gehiago kontratatuko ote dituzten eta zein izango den zerbitzuaren antolakuntza. Kontuan izanik uda-sasoian udalerri bietako biztanleria asko handitzen dela, eta 2023an gertatutako arazoak ez errepikatzeko, alkate biek neurriak eskatu dizkiote Osakidetzari; izan ere, salatu dutenez, iaz ez zen langile-kopurua handitu, eta, gainera, ez ziren osasun-zerbitzuko profesionalen oporrak bete; horrenbestez, lehen mailako arretako langileek kuota handiagoak hartu behar izan zituzten euren gain, beharrizanen areagotzea ematen den garai batean, hala nola Plentziako eta Gorlizeko pediatria-zerbitzuaren konbinazioa edo helduen arretarako mediku bakar baten laguntza fakultatiboa. Alkate biek azpimarratu dute «konpromiso argia» dutela osasun publikoaren eta zerbitzua emateko «beharrezkoak» diren baliabideak ematearen alde. ◂





Barrika San Juan jaiak

Suak piztu dezala barrikoztarren festa!

Ekainaren 21etik 24ra bitartean ospatuko dituzte Barrikan San Juan jaiak. Ohi legez, sua piztuko dute, hilaren 23an, 22:00etan.

Ekainari hasiera emateko Itsas Merkatua hartu zuen Barrikak maiatzaren 31tik ekainaren 2ra eta, horren ondotik, udari ondo-etorria egiteko San Juan jaiak ospatuko dituzte, hilaren 21etik 24ra bitartean, ondoko kutxan ikus daitezkeen hamaika jarduerakaz batera.

Ekainaren 21ean emango diete hasiera barrikoztarren urteroko hitzordurik argitsuen eta itxarotetsuenetako bati. 18:00etan jaurtiko dute txupina eta, horregaz batera, sanjoanek eztanda egingo dute kostaldeko herri horretan. Horri jarraituta, askotariko ekintzez gozatzeko parada izango dute herritarrek, lehiaketak, antzezlanak, azokak, musika, dantza eta, ohi legez, ikuskizun arrakastatsuena: San Joan bezperako tradiziozko gauari argia jarriko dion su-ikuskizuna. Era berean, aipatzekoa da ere herritar denak batzeko egingo duten herri-bazkaria, azken egunean.

Barrikako jai-batzordeak azaldu duenez, lerrook idazterakoan oraindino behin-behinekoa zen egitaraua, baina behin betikoa dutenean, hiruka.eus webgunean eguneratuta topatu ahal izango duzue. ◂

Egitaraua, behin-behinekoa

Ekainak 21, barikua

18:00 Txupinaren jaurtiketa eta pregoia.
18:30 Dantza-plaza: Patxi eta Konpainia.
20:00 Sardina-jana eta sagardo-festa.
21:00 Erromeria: Nonbait.

Ekainak 22, zapatua

10:00-15:00 Sukalki Txapelketa. Izenemateak, udaletxeko plazan.
12:00-15:00 Haurrentzako puzgarriak.
12:30-13:30 Txotxongilo-tailerra.
13:30-14:30 Txalaparta-tailerra.
17:30 Sukalki Txapelketaren sari-banaketa.
18:30 Familia-antzerkia: Perli eta Koxkoloren *Bidaia lilugarria*.
20:00 Saiheski-jan herrikoia.
21:00 Kontzertua: Trikizio.

Ekainak 23, domeka

10:00 Nekazaritza eta Artisautza Azoka.
12:00-14:00 Umeentzako puzgarriak eta egurrezko jolas erraldoiak.
12:00 Igel-toka txapelketa.
12:30 Euskal Dantza txiki.
13:00 Barrikako Emakumeen Hitza dantza-taldearen ikuskizuna.
14:00 Bits-jaia.
14:00 Bendeja sari-banaketa.
17:00 Mus Txapelketa.
18:00 Familia-ikuskizuna: Gora Bihotzak.
19:00 Eingo dantza-taldea.
21:30 Txokolate-edana.
21:30 Tai ji erakustaldia.
22:00 Suak Su ikuskizuna.

Ekainak 24, astelehena

11:00 Meza nagusia.
12:00 Barrikako Aita Gotzon eta Sopelako Lagun Artean abesbatzen kontzertuak.
12:30 Agurra, Emakumeen Hitza dantza-taldearen eskutik.
14:00 Herri-bazkaria. Izena emateko epea, ekainaren 19ra arte, Jubibarrikaren bulegoan, martitzenean eta barikuetan, 17:00-20:00.





Euriak ez ditu euskaltzaleak

Hamaika ekintzaz osatutako egitarau oparoa egon zen Getxon ospatutako Ibilaldian. Besteak beste, topaketak, herri-bazkaria, puzgarriak eta kontzertuak egon ziren.



Lau txokotan banatuta egon zen Getxoko Ibilaldia:

Maiatzaren 26an, leihoa ireki bezain laster, musika eta jendearen ahotsak entzun genituen. Ibilaldi Egunа heldu zen! 2002tik 2024ra, hor geunden Algortan txonbo egiteko prest. Egun zoragarria izan zen; nahiz eta eguraldi txarra egin, euskaldunok ez ginen kikildu eta eguna aurrera eraman genuen, alaitasunez eta poztasunez. Ibilaldia ikastola laguntzeko egin da, eta lau txokotan banatuta egon da aurten: ikastola, herria (plazak), Portu Zaharra eta Ereaga hondartza. Egun euritsua izan arren, jende piloa joan zen San Nikolas Ikastolak eskaini zituen kontzertuetara, tailerretara, topaketetara...

Ibilaldiko lehenengo gunea San Nikolas ikastolan izan zen, eta gauza asko egon ziren, adibidez: HH-ko topaketa, Tor magoa, herri-bazkaria eta DJ Kaktus. Jendeari asko gustatu zitzaion jaia, gogo askorekin etorri zen ikastolara, baina batzuk faltan bota zuten euskal dantza gehiago egotea eta, zoritxarrez, bertsolariak egon zirenean oso pertsona gutxi egon ziren. Jende gehiena familia edo seme-alabengatik etorri zen Ibilaldira.

Bigarren gunean, San Nikolas eta Biotz Alai plazetan, jende asko zegoen, gehienak umeak, 5. eta 6. mailetako topaketak eta DBHko erronka zeudelako, baita puzgarriak txikienentzako ere. Eguraldia oso ondo hasi zen arren, 13:00ak inguru, euri zaparrada hasi zen, eta, horregatik, nahiz eta poz-pozik etorri, batzuk joan egin ziren euriagatik.

Portu Zaharreko gunean jende asko egon zen, gazteak batez ere, 15 urtetik 30 urtera arte, kontzertuak zeudelako: Xiberoots, Nazka, DJ Muxutritz eta DJ Bull.

Portu Zaharreko gunean jende asko egon zen, gazteak batez ere, 15 urtetik 30 urtera arte, kontzertuak zeudelako: Xiberoots, Nazka, DJ Muxutritz eta DJ Bull. Itziar Gernikatik etorritako ama gernikarrak esan zuen giro oso ona zegoela, eta bi kontzertu ikusi zituela, eta ondo pasatu zuela familiarekin. Itsasne, 37 urteko ikastolako irakaslea, arropa saltzen ibili zen, eta azpimarratu zuen adin guztientzako ekintza aberasgarriak zeudela. Ane oinez etorri zen Algortara, eta topatutako giro polita nabarmendu zuen, baita Mirenek ere: «Ekintza dibertigarriak eta entretenigarriak egon dira».

Iñaki Bitxitegia
Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala
Villamonte plaza 3 94 430 23 45 Algorta Telletxe 1 94 460 27 41

JUAN MARI
Haragitegia Urdaitegia
Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua
Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

gelditu Ibilaldian!

txonbo! ibilaldia 2024 Getxo



ikastola, herria (plazak), Portu Zaharra eta Ereaga hondartza .

Nahiz eta eguraldia bikaina ez izan, jende asko hurbildu zen Algortara. Gune gehienetan giro aparta zegoen eta, jasotako iritzien arabera, denek egun «ezin hobea» pasatu zuten.

Ereagan, laugarren gunean, egurrezko jolasak, Goazen! taldearen kontzertua, Ikusi Makusi gunea, txosnak eta jolasak egon ziren, besteak beste. Jende asko hurbildu zen, gehienak seme-alabekin etorritakoak. Oroitz Algortara hurbildu zen, euskararen aldeko topaketa delako Ibilaldia, eta hurrengo urtean ere joango dela esan zuen, Galdakaora, bere ikastolak, Eguzkibegik, antolatzen duelako; Ainarak eta Asierrek ere gauza bera esan zuten, Algortan «kala-kalata» amaitu zuten arren!

Nahiz eta eguraldia bikaina ez izan, jende asko hurbildu zen Algortara. Gune gehienetan giro aparta zegoen eta, jasotako iritzien arabera, denek egun «ezin hobea» pasatu zuten. Beraz, ez galdu aukera datorren urtean Eguzkibegi ikastolak antolatuko duen Ibilaldira joateko, ederto batean pasatuko duzue eta! ◂

Publierreportajea **Artolozaga Anaiak**

ARTOLOZAGA ANAIAK TAILERRAK

Gatzarriñe kalea 42, 48600, Sopela • 946 760 013 • www.talleresartolozaga.com

Zure konfiantzazko tailerra

BOSCH Service

Autoen konponketako fase eta atal guztiak hartzen dituzten profesional talde kualifikatua dute Artolozaga anaiek. Mekanika osoa, elektronika, diesel zein gasolina ibilgailuak, gurpilak, txapa eta pintura jorratzen dituzte Sopelako Gatzarriñe kalean duten tailerrean. Horietan emaitzarik onena izateko goi mailako teknologia darabilte, eta Bosch Car Service zigiluaren bermea daukatenez, besteak beste, ordezko pieza originalak erabiltzen dituztela ziur egon zaitezke.

Etxetik hurbil eta 40 urteko ezagutza metatuagaz, Artolozaga anaiak da ibilgailua prest jartzeko eta edozein konponketa egiteko tailerra, zalantza barik.

Ez izan zalantzarik, autoak arazoak ematen badizkizu, motorra hondatu bazaizu, IAT gainditzeko arazoak badituzu, doikuntzak egin behar badizkiozu edo etxetik hurbil konfiantzazko tailer baten bila ari bazara, joan Artolozaga anaiak tailerrera eta ez zaizu damutuko.



Multimarka. Artolozaga anaiek marka eta mota guztietako ibilgailuak artatzen dituzte euren tailerrean.



Diagnostikotik hasita, konponketa konplexuenetara egiten dute, baita mantentze-lanak ere. Jarduera integrala.



Ibilgailu elektrikoak eta hibridoak ere artatzen dituzte. Teknologia berrienetara moldatutako mekanikarekin.



Umore Azoka, distira betean

Bukatu da 2024ko Leioako kaleko artisten azoka handia. Euriak programazioa aldatzera behartu bazuen ere, aurten ere dantzariek, funanbulistek, pailazoek eta askotariko artistek dagokion distira eman diote Umore Azokari. Daborduko hurrengo urtean etorriko diren hemengo eta hango artistak biltzen hasi dira antolatzaileak, baina, bitartean, aurtengo azokaren irudi ederrok uzten dizkizuegu.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES**








ERAITSI S.L.






INDICE
DE MALDAD


LABUR
3













Migrazioak proiektua eta azoka solidarioa egingo duten Zipiriñeko LHko 5. mailako zikloko bost ikaslegaz izan da HIRUKA, egindako lana hurbiletik ezagutzeko. Ezkerretik eskuinera: Daniela Duque Gutierrez, Liher Barrena Ibañez, Danel Municio Campo, Aiert Uria Etxebarri eta Hiro Apecetche Galante.



Zipiriñeko ikasleen ekimenari esker, hainbat familiak jostailuak eman dituzte dohaintzan. Ekainaren 7ko azoka solidarioan horiek salduko dituzte, eta batuko duten dirua *Aita Mari* itsasontziaren proiektuari emango diote, Mediterraneo hegoaldean errefuxiatuak erreskatatzen jarraitzeko. Azoka eskolako jaiagaz batera egingo dute, eta proiektuaren berri emateko hainbat ekintza ere egingo dituztela iragarri dute.



ARGAZKIA: JUAN LUIS HARO

Aita Mari itsasontziak 12 misio egin ditu 2017tik; Mediterraneo itsasoan Europara heldu guran euren bizitza arriskatu duten pertsonak erreskatatzen ibili da. Boluntarioen lanari eta erakundeen eta norbanakoen finantziazioari esker egiten du bere lana, eta, azken urteotan, 1.500 pertsona baino gehiago erreskatatu ditu. Horrez gain, Giza Eskubideen urratzeak salatzeko ekintzak ere egiten dituzte.

Zipiriñeko ikasleak *Aita Mari* proiektua

«Diruari esker, jende gehiago erreskatatu ahal izango dute»

Ekainaren 7an, bosgarren mailako ikasleek azoka solidarioa egingo dute Sopelako Zipiriñe ikastetxeko jaiagaz batera. Hala, azken hilabeteotan, migrazioen, giza eskubideen eta errefuxiatuen inguruan landu duten proiektua borobilduko dute. Egun horretan batuko duten dirua *Aita Mari* itsasontziarentzako izango da, Mediterraneo itsasoan etorkizun hobe baten bila bizitza arriskatzen duten pertsonak erreskatatzen jarraitu ahal izateko.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** • ARGAZKIAK: **JUAN LUIS HARO, SMH eta ANDER ZARRAGA** ▶

Batuko duten dirua Itsas Salbamendu Humanitarioa (SMH) gobernuz kanpoko erakundeari emango diote, besteak beste, *Aita Mari* erreskate-ontziaren proiektua babesteko. Hala ere, horraino heldu aurretik, 10-11 urteko ikasleek hainbat hilabetez aritu dira lanean Migrazioak izeneko proiektu hau lantzen. Bidean, Sopelako Zipiriñeko LH 5 mailako 100 ikasle inguruk hainbat gai landu dituzte: besteak beste, giza eskubideak, migrazio-prozesuak eta munduan existitzen diren desparekotasunak. Halaber, errefuxiatuen eta etorkinen inguruko hainbat mito ere desegin dituzte.

Proiektu guztia hasi zen Juan Luis *Juanlu* Haro Gonzalez medikua eta ikasleetako biren aita Zipiriñeko irakasleei jakinarazi zienean *Aita Mari* itsasontzira boluntario joango zela. Hala, horren jarraipena egitea planteatu zien ikasleei. Sopeloztarraren proposamenari jarraituz, *Aita Mari*ren 12. misioaren jarraipena egiten hasi ziren. Horri esker, ikasleek itsasontziko tripulazioko boluntarioakaz eta erreskatatu zuten jendeagaz harreman zuzena izan, eta egiten duten lana itsasontzitik zuzenean ikusteko aukera izan zuten. Halaber, ikasleak proiektua lantzen hasi zirenean, EITBk egindako *Aita Mari* dokumentala ere ikusi zuten, egitasmo horren nondik norakoak aztertzen dituen lana, hain zuzen ere. *Juanlu* itsasotik bueltatu zenean, ikasleakaz ere egon zen, esperientziaren inguruko hitzaldia emateko, bizitakoa eta SMHren misioari buruz gehiago jakin zezaten.

12
erreskate-misio egin ditu *Aita Mari* itsasontziak, 2017an, Getariako arrantzontzi bat erreskate-ontzi bihurtu zutenetik.

32
metroko luzera duen itsasontzian 150 pertsona inguru sartzen dira egiten dituzten erreskate-misioetan.

1.500
pertsona baino gehiago erreskatatu dituzte Mediterraneo hegoaldean, Europara heldu guran zebiltzala.

100
ikaslek baino gehiagok parte hartu dute Zipiriñek egin duen proiektuan.

Azken hilabeteotan ikasitakoa bertatik bertara ezagutzeko, Zipiriñeko bosgarren mailako zikloa osatzen duten bost ikasgeletako ordezkari bana batu dugu. Liher Barrueña Ibañez, Daniela Duque Hernandez, Hiro Apecetche Galante, Daniel Municio Campo eta Aiert Uria Etxebarria dira horiek. «Ikasi dugu *Aita Mari* dela itsasontzi bat erreskatatzen dituena pertsona etorkinak eta errefuxiatuak Mediterraneo itsasoan eta Europako herrialdeetara eramaten dituela», hasi da azaltzen Municio. «Gainera, proiektu honetan jakin dugu zer diren giza eskubideak eta nola dauden munduan, edo zein den immigranteen, errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen arteko desberdintasuna ere», erantsi dio Barrueñak. Apecetchek gogoratu duenez, ordura arte gehienek ez zekiten *Aita Mari* zer zen, baina egindakoari esker ezagutu dute proiektua eta barkuaren istorioa ere zein den: «Kontatu ziguten Zumaian gizon bat zegoela aspaldi, ekaitza zegoenean itsasora ateratzen zena jendea erreskatatzera. Egun batean, ito egin zen eta bere izena Jose Maria Zubia *Aita Mari* zenez, bere omenez jarri ziotela itsasontziari *Aita Mari* izena».

ERREALITATE GORDINA. Barkua eta hori kudeatzen duen SMH gobernuz kanpoko erakundearen egitasmoa ezagutzeaz gain, ikasleek azaldu dute proiektu honek beste errealitate batzuk ezagutzeko ere balio izan diela. «Kontu-

ratu gara hemen zein ondo bizitzen garen, eta beste leku batzuetan bizitza oso gogorra dela eta jendeak alde egin behar duela, pentsatzen dutelako hemen hobeto egongo direla, baina asko ez dira heltzen», adierazi du Municiok. Besteek gaineratu dute klasean egin dituzten lanei esker migrazio-prozesuetan pertsonek bizi dituzten hainbat zapalkuntza eta egoera latz ikusi dituztela, eta nola herrialde guztietan ez direla giza eskubideak hemen bezala errespetatzen. «Beraien herrialdeetan oso txarto bizi dira eta askok ihes egiten dute, baina bidetik oso txarto pasatzen dute eta asko itsasoan itotzen dira», adierazi du Uriak.

«Proiektua lantzen ari ginela jakin eta gero, Ikasleen Gurasoen Elkarteko kide bat etorri zen eskolara eta proposatu zuen merkatu solidario bat egitea *Aita Mari* eta SMHrentzako dirua batzeko, eta guri ideia ona iruditu zitzaigun», azaldu du Duquek, laburbiltzeko nola suertatu zen azoka solidarioa egiteko proiektua. Dioenez, gurasoen elkarteko kideak ere asko inplikatu dira egitasmoan, eta LH bosgarren zikloko irakasleen laguntza ere izan dute: Leyre Fernandez, Eukene Blanco, Koldo Iturralde, Maider Arevalo eta Joane Elorriaga.

Hala, gutxika-gutxika, ikastetxeko familien ekarpenei esker hainbat jostailu batu dituzte, pelutxeak, puzzleak, trizikloak... Apecetchek baieztatu duenez, «edozein motatako jostailuak batu ditugu, eta, gero, horiek sailkatu, garbitu eta ondo jarri ditugu azokan saltzeko. Lortzen dugun diruari esker itsasontzian erreformak egin ahal izango dituzte, janari gehiago erosiko dute eta SMH proiektuari lagunduko diogu jende gehiago erreskatatu ahal izateko». Gainera, azokaren berri emateko, zikloko bost ikasgelen artean hainbat ekimen burutu dituzte, hala nola kartelak jarri, podcast bat egin, bideo bat grabatu... Ikastetxeko ikasgela guztietatik ere pasatu dira, azokarako jostailuak eraman zezatela eskatzeko eta helburua zein den azaltzeko.

Ekainaren 7an, arrastian, azoka solidarioa egingo dute Zipiriñeko patioan. Bertan, batutako jostailuez gain, Barreñok azaldu du eskolako sukaldariengana ere joan direla, galdetzera ea egun horretarako jateko zerbait prestatu dezaketen, «eta tortilla eta gazta-bizkotxoa egingo dutela esan digute». Gainera, egun horretan, proiekturako klasean ikasitakoagaz egin dituzten panel guztiak ere jarriko dituzte ikusgai, giza eskubideen, migrazioen eta bestelako gaien inguruan landutakoa beste ikasle eta gurasoei ere erakusteko.

«Nahi duena etor daiteke, egun horretan eskolako jaia ere ospatuko delako eta gimnasia erritmikoko txapelketa ere egongo delako, beraz, jende asko etorriko da», aurreratu du Municiok. ◂



«Egin dituzten gauzak beraien esku egiten utzi diegu, guk ideiak botatzen dizkiegu, baina beraiek dira inplikatzen direnak»

«Hau guztia hasi zen *Juanluk* email bat bidali zigunean, gero prozesu guztia Migrazioak izeneko proiektuaren barruan landu dute, eta horretan, besteak beste, hainbat mito desegin dituzte»

«Lan izugarria egin dute; hasieran apur bat kostatu zen, baina gero asko inplikatu dira. Errefuxiatuen eta etorkinen inguruko hainbat gauza ikasi dituzte, eta azoka eta zabalkundea asko gustatzen zaie»

«Misioa bukatu zutenean Bilboko Itsas Museumera ekarri zuten *Aita Mari*, baina ezin izan ginen bisitatzera joan; hala ere, ikasle asko joan ziren beraien familiekin»

ANDONI MARTIN ALDECOGARAI
ZIPIRIÑEKO IRAKASLEA ETA PROIEKTUKO BURUA





Gaur-gaurkoz *Aita Mari* itsasontzia Pasaiako portuan dago Meditarraneo itsasoan egiten duten lana zabaltzeko ekintzak egiten. Azken erreskate misoan parte hartu zuen Juan Luis *Juanlu* Haro Gonzalez mediku sopeloztarrak. Berak azpimarratu duenez, besteak beste, egitasmo honek gaztetxoak proiektu solidaroetan inplikatzearen garrantzia erakutsi du.

Zertan dago *Aita Mari* gaur-gaurkoz? Momentu honetan *Aita Mari* Pasaian dago. 12. misioa bukatu eta gero, itsasontziak buelta osoa eman zion Iberiar penintsulari Euskal Herrira ailegatzeko. Bidaia luze horren helburua izan da Euskal Herriko gizarteari jakinaraztea Mediterraneoaren hegoaldean egindako lana zein izan den. Hala, bisita gidatuak egin dira itsasontzia barrutik ezagutzeko, lehenik, Bilbon eta Pasaian gero.

Nola sortu zen Zipiriñe eta *Aita Mari*ren arteko elkarlan hau? Modu espontaneoan sortu zen. *Aita Mari*n ontziratu nintzenean, Zipiriñeko irakasleekin harremanetan jarri nintzen, nire seme-alabek han ikasten baitute, eta proposatu nien misioaren jarraipena egin zezaten. Egia esan, oso denbora gutxiren buruan, Aita Mariri buruz eta Mediterraneo hegoaldean egiten ari den lanari buruz hitz egiteko proiektu bat prestatu zuten, eta bidali nizkien aurkezpen-bideo batzuen bidez, itsasontzia eta tripulazioa ezagutu ahal izan zituzten. Ondoren, misioa jarraitu zuten, denbora errealean itsasontziaren posizioaren jarrai-





Juan Luis *Juanlu* Haro Gonzalez Boluntarioa *Aita Mari*ren 12. misioan

«Honekin jauzi zirraragarria eman da proiektuaren hedapenean»



pena egiten duen web orri baten bidez. Gainera, bideokonferentzia bat ere egin genuen, eta ikasleek erreskatatutako pertsonak agurtu ahal izan zituzten. Apurka-apurka, *Aita Mari*ri buruzko arreta handia sortu zen ikastetxean, eta haurrak etxean galdetzen hasi ziren: jakin nahi zuten ea zergatik dauden pertsonak beren herrialdeetatik ihesi, etsipenez itsasora oldartzen direnak, eta zergatik Europak sarrera ukatzen dien.

Bueltatu nintzenean, irakasleek eta Zipiriñen hirugarren eta bosgarren mailako lagunek esperientzia kontatzera joatea proposatu zidaten. Bi hitzaldi zoragarri izan ziren, bakoitzean 100 ume ingururekin, eta hainbat galdera egin zizkidaten. Nolabait, interes-oldea sortu zen Itsas Salbamendu Humanitarioaren proiektuarekiko, hau da, *Aita Mari*ren misioak antolatzen dituen gobernuz kanpoko erakundearekiko. Horrela, aste batzuen buruan, Ikasleen Gurasoen Elkartearen eta bosgarren mailako ikasleen proposamena iritsi zen: GKEarentzako dirua biltzeko azoka antolatu nahi zuten. Ekimen honekin, uste dut oso jauzi zirraragarria eman dela, proiektuaren hedapena eta bere mezua GKEan parte hartzen dugun jendearengandik haratago eramango baitu. Eta, are garrantzitsuagoa dena: 10-11 urteko haurrak inplikatu ditugu eta migrazio-krisien errealitatea ezagutu dute, Europako legeen eta jardueren hipokrisiarekin eta bizi garen gizartearen kontraesanekin aurrez aurre jarriz.

Zertarako izango da batuko den dirua? Itsas Salbamendu Humanitarioa erakunde txikia da,



«Sopelan *Aita Mari*ren eguneroko presentziak, eta horrekin batera Mediterraneo hegoaldeko migrazio-krisiaren errealitate gordinak erakusteak, ikuspuntu-aldaketa dakarrelako eta gure arazoetako asko erlatibizatzea eragiten duelako»

JUAN LUIS HARO GONZALEZ
BOLUNTARIOA *AITA MARI*REN 12. MISIOAN

eta misio bikoitza du: eraldaketarako hezkuntza eta *Aita Mari*ren erreskate-misioak. Bi zeregin horiek egiteko behar diren baliabideak oso handiak dira: batetik, giza alderdia erakundeko langileen dedikazioarekin eta konpromisoarekin lortzen da, eta, bestetik, parte ekonomikoa lortzen dugu erakundeen finantzazioaren eta herritarren elkartasunaren bidez, adibidez, bazkide-kuotei esker, egindako azken *crowfunding*eko dohaintzen bitartez edo Zipiriñen egingo diren ekintzen modukoen bitartez. Baina diruaz haratago, funtsezko balio bat dago: SMHren proiektuarekiko eta balioekiko lotura sentitzea. Horregatik dira garrantzitsuak gizarteak proiektu solidarioetan inbertitzen dituen ekintzak, are gehiago haurrei buruz hitz egiten ari bagara.

Zergatik uste duzu garrantzitsua dela Sopelan horrelako proiektu bat garatu izana? Ideia bera azpimarratuz, Sopelan *Aita Mari*ren eguneroko presentziak, eta horrekin batera Mediterraneoko migrazio-krisiaren errealitate gordinak erakusteak, ikuspuntu-aldaketa dakarrelako eta gure arazoetako asko erlatibizatzea eragiten duelako. Ulertzen badugu zenbat sufrimendu eta bidegabekeria jasaten duten migratzaileek, konturatuko gara zein pribilegiatuak garen. Hori ulertzen badugu, esker oneko sentimendu sakona garatuko dugu. Hori garatzen badugu, gure energia eta ekintzak ondasun kolektibo batera bideratzeko gai izango gara. Guztion onerako lan egitea lortzen badugu, gure bizitzak hobeak izango dira, besterik gabe. ◂

Ekaina

Barrika

Ekainaren 21etik 24ra
San Juan jaiak
Egitaraua: hiruka.eus-en.

Ekainaren 28, barikua
Ludoteka: Ostadar Mobila
18:00 | Liburutegian
Izen-emateak, liburutegian.

Berango

Ekainak 18, martitzena
Ikasturte amaierako dantzaldia
19:00 | Fernando Ansoleaga Antzokia
Udal Dantza Eskolako ikasleen erakustaldia.

Ekainak 20, eguena
Kontzertua: New Life Foundation
19:00 | Fernando Ansoleaga Antzokia
AEBko taldearen kontzertua.

Ekainak 21, barikua
Ikasturte amaierako entzunaldia
18:00 | Fernando Ansoleaga Antzokia
Udal Musika Eskolako ikasleen emanaldia.

Erandio

Ekainaren 1etik 29ra
Musikaren hilabetea
Erandioko auzoetan
Hainbat emanaldi egingo dituzte herritik.

Ekainak 8, 9 eta 11
Faoetako San Bernabe jaiak

Ekainaren 12tik 16ra
Erandioko kirol astea
Erandioko auzoetan
Hainbat kirol probatzeko jarduerak egongo dira.

Ekainak 13, 15 eta 16
Martiartuko jaiak
Martiartu auzoan
Auzoko San Antonio jaiak ospatuko dituzte.

Getxo

Ekainaren 6tik 30era
Getxophoto 2024
Getxon
Egitaraua: hiruka.eus-en.

Ekainak 14, barikua
Balkoitik balkoira
21:30 | Portu Zaharrean
Maialen Lujanbio eta Etxahun Lekue.

Ekainak 15, zapatua
Barne Barnetik Eguna
Egitaraua: hiruka.eus-en.

Ekainak 22, zapatua
Kontzertua: Txelu' s Band
22:00 | Topa tabernan

Ekainak 23, domeka
Udako solstizioko bertso-saioa
20:30 | San Nikolas plazan
June Diaz, Maialen Lago eta Peio Lago.

Ekainak 27, eguena
Antzerkia: *Erreka Mari*
19:30 | Muxikebarri Antzokian
Autobiografia *Queer* bat.

Gorliz

Ekainak 15, zapatua
Kirol Eguna
10:00 | Elizako plazan eta Itxasbide kalean
Hainbat kirol probatzeko aukera egongo da.

Ekainak 22, zapatua
Folklore Eguna
20:00 | Ibarreta plazan
Grup Folklòric Sant Josep de Sa Talai (Eivissa) eta Aratz dantza-taldearen erakustaldia.

Ekainak 29, zapatua
San Pedro festak
San Pedro plazan
Musika, umeen parkea, dantzak, zezensuzkoa...

Leioa

Ekainak 14, barikua
Musikalera! 2024
18:30 | Leioako kaleetan
Musika Eskolako ikasleek kalera aterako dituzte beren instrumentuak egun horretan.

Ekainaren 14tik 24ra
San Juan jaiak
Leioan
Egitaraua: hiruka.eus-en.

Lemoiz

Ekainak 22, zapatua
Eskolako jaia
Lemoizko eskolan

Ekainak 29, zapatua
Erakusketa: *Pinturitas*
Andraka Armintzako kultur etxean
Lurretik Hormara proiektuaren sari-banaketa.

Plentzia

Ekainak 14, barikua
Berbaldia: *Memoria Eguna*
18:30 | Goñi Portalen
Javier Buces eta Maria Laespadaren hitzaldia, Plentzian izandako errepresio frankistaren inguruan.

Ekainak 16, domeka
Zinegoak
18:00 | Goñi Portalen
Zinema, kultura eta aniztasunaren jaialdia Plentziara ere helduko da.

Ekainak 28, barikua
Musikala: *Sex Sua*
19:00 | Goñi Portalen
14 urtetik gorakoentzako musikala.

Sopela

Ekainaren3tik 30era
Erakusketa: *Argizaiola Sariak*
Kurtzio kultur etxean
70eko hamarkadan sortu zen argazkilaritza sariko irudirik onenak.

Ekainak 14, barikua
Dantzertiko ikasleen ikuskizuna
19:00 | Kurtzio kultur etxea
Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako Eskolako ikasleen proiektuaren aurkezpena.

Ekainaren 27tik 30era
San Pedro jaiak
Sopelan
Egitaraua: hiruka.eus-en.

Urduliz

Ekainak 14, barikua
Inguru Minguru tailerra
17:00 | Antsonekoa plazan
Lau urtetik gorako umeentzako.

Ekainak 16, domeka
Urdulizko I. Dantzaldi Eguna
11:00 | Elexalde kalean eta Antsonekoan
Egun osoko egitaraua dantza eta musikagaz.

Ekainak 28, barikua
Kontzertua ELAren alde eta Onintza Llonaren omenez
19:00 | Urdulizko kultur etxean
Beti Lagunak Urduliz eta Viejos Amigos taldeek ongintza kontzertua eskainiko dute.

Gidabaimena Euskaraz

BERRIA!

WWW.GIDABAIMENAKEUSKARAZ.EUS
webgunean:

- testak online
- eskuliburuak eskuragarri



ateratzen baduzu,
gastuaren % 80
jaso dezakezu.

GEHIENEZ, 200 €

(15-23 urte)
Kontsultatu baldintzak



Gainera,
100 euroko
3 erregai-txartel
zozkatuko ditugu!



INFORMAZIO GEHIAGO:

Zure autoeskolan edo
GETXOKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAn:
94 466 00 10 · euskara.zerbitzua@getxo.eus
www.getxo.eus/euskara

ALKARBIDE
Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilgunea

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Getxo
bizi ezazu

Lehen/Orain **Ereaga hondartza, 1983ko uholdeen ostean.**



Uribitakora



TESTUA
Josu Landeta Egurrola

DOINUA
Bazkalosteko kafea

ARGAZKIA
Hodei Torres

Euskaraz harro

Begira metal hotzak babesten
duen berba gatz gabea,
begira gure gainetik armen
indarra duen legea.
Biak gogorrak, biak gotorrak,
denontzako galbidea.
Hala ere jende ahaldun sentikor
batek argi du xedea:
erdal naufrago den kartelean
salbamendu orri berdea.

«Inposaketaz ari zaizkigu»
entzungo dugu lantzean,
baina helburuak betetzen dira
prozesuak behartzean;
badatorkigu udaberria,
negua lotu da atzean.
Alferrik daude BILDU,EAJ,
ATHLETIC aho ertzean,
alferrik daude tribu horiek
euskaraz bizi ezean.

Erdal naufrago habilen horri
itsaso beltzean narraz,
taula puskari estu helduta
ia ezin egin arnas;
euskalduntzeko sokari eutsiz
harro hadi egun zein gabaz.
Erdu gurekin bidea egiten,
erdu ez egon ikaraz,
hitz egin eta jolas dezagun
Euskal Herrian euskaraz.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

La Tokokera



«Gure apustua organikoa eta dinamikoa da»

TESTUA: **NAHIA MARTINEZ GONDRA**
ARGAZKIA: **LA TOKOKERA** ▶

Tocoquera berbak buruko egoera ezegonkor bati egiten dio erreferentzia, baita festa iskanbilatsuen arimari ere. Hala, 2017an sortu zuten musika taldearen esentzia laburtzeko izen egokia zela erabaki zuten, Punto Fijo (Venezuela) hiriko eta taldeko kide ohi Iker Larrañagak proposatuta. Zazpi urteren ostean, taldearen doinu parrandazaleek bizirik diraute: *Sonando #1* izeneko zuzeneko sesioa kaleratu berri dute.

Nortzuk zarete La Tokokerako artistak? Taldean 9-10 kide inguru gara eta gure inguruko hainbat musikarirekin egiten dugu lan: Bilboko Josu San Roman (saxofoia), Kolonbiako Vladimir Allens Theran (saxofoia eta perkusioa), Madrilgo Juan Pignatelli (kongak), Argentinako Nicolas Pino (perkusioa), Donostiako Oskitz Gorrotxategi (tronpeta), Madrilgo David Mellado (kongak) eta Venezuelako Samuel Josue Koquis (tronboia). Aldatzen ez den taldearen muina bost musikarik osatzen dugu: Getxoko Marta CenizaFragua (abeslaria), Txileko Diego Dolarea (bateria-jolea), Galiziako Ulises Martinez (teklista), Mexikoko Gonzalo Arechavaleta (baxu-jolea) eta Leioako Jorge Varela (gitarra-jolea).

Zein da zuon estilo musikala? Cumbiatik abiatuta, estilo latindarretan oinarritutako fusioa egiten dugu. Halere, oraintxe bertan, inoiz baino estilo gehiagorekin esperimentatzen gabiltza: mapale, bugalu, salsa, bolero, bachata...



«Zorionez, Euskal Herrian gero eta gogo handiagoa dugu beste musika mota batzuk ezagutzeko eta horietaz gozatzeko, eta hori asko estimatzen dugu. Euskaldunek aldakei hautsa kentzeko nahia dute. Latindar publiko asko hurbiltzen da, baita euskalduna ere»

Nola ikusten duzue eskualdeko panorama musikala? Badira irrati-formulako pop-rocketik urruntzen diren proiektu oso interesgarriak. Baina, gure ustez, aniztasun hori ez dago guztiz agerian edo ez da modu errazean jendearen belarrietara heltzen. Zaila da proiektu autogestionatuekin tokiko hedabideetan lekua egitea. Musikari kopuruari erreparatuz, gu bezalako talde handietarako oholtzak aurkitzea ere zailagoa da, baliabideak kulturan urriak direlako. Batzuetan, literalki, eszenan dauden oholtza askotan ezin dugu ezta talde erdia sartu. Gainera, musika estilo korronte bat nagusi da hemen, eta hortik ateratzen bazara, ez dago interesik. Hala ere, polita da zerbait «desberdina» egiteagatik eskerrak iristen zaizkigunean.

Zerk egiten du La Tokokera berezi? Bakoitza munduaren punta batekoa izateak aberastu egiten du musika-aniztasuna. Gainera, oholtzaren gainean asko gara % 100 instrumentala den zuzeneko musika jotzen. Publikoarekiko konexioa oso dinamikoa eta bizia da, eta horrek «zuzenekoetan» aritzen den taldea garela berresten du. Gure abestiak propioak dira; Euskal Herrian ez daude musikari latindar eta euskaldunak batera elkarlanean aritzen diren eta jatorrizko latinezko musika jotzen duten proiektu askorik. ◀

Lurretik Hormara ekimena Pintura-lehiaketa

Lurzoruko irudietatik, zeruko eraikinera

Lemoizko herritarrek klariona artean margotzen pasatu zuten maiatzaren 25eko goiza. Izan ere, Urizarko frontoi irekian bildu ziren adin guztietako lagunak Lurretik Hormara pintura-lehiaketan parte-hartzeko. Hala, bizilagunek egindako marrazkien ideietatik abiatuta, herriko fatxada bat margotuko dute. Irabazleak ekainaren 29an jakinaraziko dituzte, Armintzako kultur etxean.

TESTUA: **NAHIA MARTINEZ GONDRA** • ARGAZKIAK: **LEMOIZKO UDALA** ▶











N. Iturregi, M. Lozano eta I. Arburua *Gorriaz* dokumentala

«Biztanleriaren erdiak bizitako prozesu onuragarria da hilekoa»

NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶



Leinn Graduko ikasleak dira Iturregi, Lozano eta Arburua. HODEI TORRES

Gorlizko Nekane Iturregi, Barakaldoko Maider Lozano eta Zizurkilgo Iraia Arburuak sortutako proiektua da *Gorriaz* dokumentala. Euren helburua da «sexu-hezkuntza lantzea, hilekoaren hezkuntza bereziki, ikuspegi feminista batetik abiatuta». Horretarako, Euskal Herriko, Hego Koreako eta Indiako emakumeen esperientziak jaso dituzte, hilekoa herrialde ezberdinetako emakumeek nola bizitzen duten ikusarazteko. Maiatzaren 30ean dokumentalaren aurkezpena egin zuten, Berangon. Hala, lehen eskutik ezagutu dugu nolakoa izan den dokumentalaren prozesua.

Nola sortu zen *Gorriaz* proiektua? Hirurok egin dugu Leinn Gradua, Lidergoa, Ekintzailetza eta Berrikuntza ikasketak. Maiderrek eta Nekanek Bilbon, eta, Iraiak, berriz, Irunen, baina Seulen (Hego Korea) ezagutu genuen elkar. Maiderrek eta Nekanek bazuten ibilbide bat eginda proiektuarekin eta gaiarekin, eta egun batean, proiektuei buruz hitz egiten ari ginela, Iraiari asko interesatu zitzaion *Gorriaz*. Beraz, emaitza hobea lortzeko taldean lan egitea erabaki genuen.

Hilekoarekiko ikuspegia aldatu zaizue dokumentala egin ostean? Hilekoari buruz berba egiterakoan, alderdi batzuetan ezjakintasuna sentitu genezakeen kontziente izan gabe. Ezagutza asko falta da, eta horregatik da hain interesgarria emakume desberdinen ikuspegiak ezagutu ahal izatea. Bertatik ikasi eta bakoitzaren pribilegioei buruz hausnartzeko aukera ona da.

Zuon lan ildoen artean, guneen transformazioa aipatzen duzue. Bai, kasu honetan, leku inklusiboen sorrera eta transformazioa beharrezkoa ikusten dugu, gune asko ez daudelako prest hilekoaren produktuen erabilera duin batentzako. Bestalde, gune sozialetan ere oraindik ezagutza falta handia dago. Izan ere, prozesu natural, beharrezko eta onuragarri hau biztanleriaren erdiak bizi du.

Euskal Herriaz gain, India eta Hego Korea ere aztertu dituzue. Zergatik? Unibertsitateko bidaia aprobetxatuz, Hego Korean pasa genituen bi hilabete, eta beste bat Indian. Oso interesgarria iruditu zitzaigun hilekoari buruzko perspektiba eta bizipen globalak zabaltzeko aukera dokumental formatuan egitea, eta honen baitan hausnarketa desberdinak egitea ere.

Non nabaritu duzue tabu gehiago? Egia da Indiako elkarrizketak eta bizipenak gogorragoak sentitzen ditugula, bertako sinismenak, emakumeen egoera eta hilekoari buruzko ezjakintasuna handiagoa delako. Baina egia da ezjakintasun hori herrialde guztietan sentitu dugula, maila ezberdinetan bada ere. Horregatik, herrialdeen arteko antzekotasunak ere nabaritzen dira dokumentalean.

Zerk harritu zaituzte gehien dokumentala egiterakoan eta lurralde horietako testigantzak ezagutzerakoan? Indiaren kasuan, harritu gintuen bertako komunak eta kabinen higieneak. Gainera, produktu batzuk edo beste batzuk erabiltzeko hautuan erlijioak duen eragina ere harrigarria da. Hego Korean, emakumeek estetika arloan sentitzen duten presioa ikusi genuen, eta horrek eguneroko alderdi guztietan nolako eragina duen. Ez ziren eroso sentitzen hilekoaz hitz egiten. Amaitzeko, Euskal Herrian, ikusi dugu orokorrean ez dela eskolan hilekoaz berba egiten. Ikusezina den gai bat dela nabaritu dugu. ◀



Grabaketa

Prozesu osoaren sortzaileak dira Nekane Iturregi, Maider Lozano eta Iraia Arburua. Hala, haiek grabatu dute dokumentala ere. «Dokumentala mugikorrarekin grabatuta dago. Lan dezente eman digu edizio lanak, baina egia da baliabide gutxirekin lan polita egin daitekeela», baieztatu dute.

Idatziko nuke...



MAITANE NEREKAN Ezertan aditua, askotan aritua

Hirukakoek eskatu didate zutabea idazteko. Gaia aukeratu, 1.200 karaktere, ortografia, gramatika... Ez dut gogorik. Idatziko nuke Otxantegiko ekozidioaz. Zelan urte gutxitan Berango suntsitu duten, porlan-diru gosez. Herriari, eskolari eta ekosistemari egingo dion kalteari arreta jarri barik. Ez dut gogorik. Idatziko nuke, zelan gure eskualdeko anbulatorioetan ez diren pediatrak, erizainak etab. ordezkatzen, gure herrietan klinika pribatuak nonahi agertzen ari diren bitartean. Ez dut gogorik. Idatziko nuke, zelan Otxantegiko lurretan herri-proiektu eko-logikoa garatu zutenak, irain matxista, gordofobo eta biolentziaz desalojatu zituen guztiok ordaintzen dugun Arkauten «formatutako» «profesional» talde batek. Ez dut gogorik. Idatziko nuke subflubialaz. Zelan Bizkaiak lehendakaritza eman dion tamainako astakeriaren ideologoari. «Garapen jasangarriaren» garaian, 35.000 kotxe gehiago errepideetan jarriko dituen lurrazpiko makro-tunelari. Ez dut gogorik. Idatziko nuke zelan eskualdeko udalek metroari frekuentzia gehiago eskatu eta ezetz erantzun dieten. Tunel erraldoia bai, metro gehiago ezinezkoa. Ez dut gogorik. Idatziko nuke sanisidro jaietan egon zen eraso lesbofobo nazkagarriaz. Ez dut gogorik. Idatziko nuke... Ez dut gogorik. Doluminak Gazara. Israeli boikota!

Txerria, astoa eta sare sozialak



GUILLERMO MALAINA MARTINEZ Irakaslea

Literatura jendea entretenitzeaz baino harago ohi doa. Ikasteko, norbera bizitzan hobea eta zoriontsuagoa izateko bidea ere bada. Beti izan da, egun ahantz badakiguke ere. Letren historian, irakaspenaren adibide mordoa dugu. Idazleen opari oparoa. Baina zutabetxo honen inspirazioaren iturria izan den testura mugatuko gara. Argitaratu zenetik, 240 urte ondotxo joanda ere, gaurkotasun oso-osoa du. Felix Maria Samaniego ilustratuaren alegia da, ezagunenetako bat. Txerri baten eta asto baten bizipena du abiapuntu. Azken honek bekaizkeriaz zekusan txerria, berorrek lan bako egunetan bapo jaten zuelako. Asto gixajoa! Txerriaren bizitzaren itxura faltsuak itsututa, triste zebilen berea kaskarra bezain nekagarria zelakoan. Ohartuko zen, alabaina, luxuzko bizitza hura gezurraren ispilua zela ganadu-hiltzaileak txerriari joan zitzaizkionean labanaz odolustera. Gaur egun, fenomeno bera pairatzen dugu sare sozialetan. Ikertuta dago. Norberak ona, itzela... dena argitaratu ohi du: bidaiak, afariak, arropa berriak, gorputz lirainak (Photoshop)... Miseriarik ez! Eta hortxe ditugu gazte asko eta asko, pantaila aurrean iltzatuta, errealitate faltsuan itsututa eta beren bizitza kaka bat dela sinetsita.

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Behin eta berriz berdinagaz amesten bazaude lo zaudela, bere garrantzia izango du esna zaudenean ere, ezta?



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Bada ordua zure lagun berezi horri benetan sentitzen duzuna komunikatzeko. Zure barrenean badakizu zerbait dagoela...



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Ekainaren 24a magia gaua da. Idatzi paper batean bete gura dituzun desira guztien zerrenda... Behintzat gura duzunaz jabetzeko ere.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Gauza asko egin gura dituzu, baina ez zara ezertan zentratzen. Beharbada komeni zaizu apur bat gelditzea, ilusioa berreskuratzeko.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Behar dituzun erantzunak topatuko dituzu laster murgilduko zaren sormen-prozesu batean. Adi seinaleei, findu intuizioa.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Inoiz ez da berandu arantzatuta gelditu zaizkizun ikasketa horiek hasteko edota bukatzeko. Zeren beldur zara?



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Gero eta memoria txarragoa duzu. Nahiz eta kontuak agendan apuntatu, hori non dagoen ere ahazten duzu. Arren, hartu deskantsu bat.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Sentitzen duzu ez duzula inoiz denborarik maite duzun jende guztiagaz egoteko. Bizitzako erritmoak zailak dira, antolatu zure lehentasunak.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Daborduko ez dena nostalgiaz gogoratzea polita ere izan daiteke. Utzi lekua tristura sentitzeko, bestela ez duzu inoiz askatuko.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Hil hau urteko argitsuena da. Aprobetxatu eguzkiaren energia gura dituzun gauza guztiak egiteko, eta ez ahaztu eguzkitako krema!



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Bazkaltzeko plater bereziak prestatzen ahalegindu zara, baina ez duzu lortu sukaldaritzaz maitemintzea. Segi saiatzen.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Hain eroso zauden egoera hori bukatzear dago. Beharrezkoa da, gauza hobeak etortzeko, eta batez ere, ikasteko. Onartu aldaketa!

Euskararen baratzea... ezagutuz aldatzea! Joseba Santxo



Martina

Getxoko Areetan, etxe izkina alakatu huntzorriz apainduko batean, ipuinetakoa dirudien ate erakargarri bat dago, atalarrian hizki dotorez idatzitako mezu hau darakusena: Martina de Zuricalday. Batzuetan ilaran egoten da jendea ate horretxen aurrean, barrura sartzeko txandaren begira. Izan ere, ate horren ostean dagoen jeneroa gozozalerik mokofinenaren ahosabaia listu-jario ipintzeko modukoa baita: pastelak, tartak, trufak, pastak, gozokiak... Sar gaitezen, bada, ate tentagarri horretatik zehar, Martinaren mundua hobeto ezagutzeko.

Maria Ramona Martina de Zuricalday Eguidazu eman zioten izena 1839ko azaroaren 11n Bilbon jaio zen emakume honi. Bera jaio baino urte batzuk arinago gurasoek gozotegia eta gozogintza lantegia ireki zituzten Posta kalean, eurak bizi ziren eraikinaren behealdean, hain zuzen ere. Martinak sei neba-arreba izan zituen, baina bera izan zen gurasoen negozioaz interesatu zen bakarra. Martina José Bayorekin ezkondu zen, 16 urte zituela, eta 14 seme-alaba izan zituen berarekin. Aita hil zitzaionean Martinak bere neba-arrebek negozioan zuten partea eskuratu eta gozotegia Kapelagile kalera aldatu zuen, baita establezimenduari bere izena eman ere. Gozotegi hura XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako biltoki ospetsu eta ospetsuen biltoki bilakatu zen.

1896an Martina alargundu egin zen, eta negozioa bere seme Ramónen izenean ipini behar izan zuen, orduko legeria matxistak galerazten baitzuen andrazkoek negozioen jabe izatea. Dena dela, berak jarraitu egin zuen negozioaren ardura nagusia eramaten. Langileen ordutegiak ere kontrolatzen ei zituen, kobratutakoak baino ordu gehiago sar ez zezaten.

1920an, Martinaren enpresak Bilboko beste hiru enpresarekin egin zuen bat: La Dulzura, Caracas eta Chocolates Aguirre (azken hau Agirre lehendakariaren sendiarena), eta bateratze horretatik Chocolates Bilbaínos enpresa sortu zen, *Chobil* izenaz ezagunagoa. Espainia mailan sektore horretako bigarren enpresa garrantzitsuena izatera heldu zen «Wonka bilbotar» hori.

Martinak hainbat gozo mota egiten zituen: irasagarrak, kauserak, azukre-koxkorrak, arrautza hariak... Bere errezetak egundaino heldu dira. Horietako bat *sokonusko* turroiarena, 1881ean idatzi zuena. Bilboko turroi tipiko horrek hiru kolore dauzka: zuria, beltzarana eta beltza.

Sokonusko izena «euskaldunduta» dago; jatorrizkoa *Soconusco* da, Mexikoko Chiapas estatuko eskualde baten izena, Martinak turroi hori handik ekarritako kakaoaz egiten zuelako.

Ez digu ondare makala utzi, beraz, Euskal Herriko gozotegien eta txokolategien aitzindaria izan zen Martina Zurikaldaikoak. Gaur egun, Martinaren ondorengoek sektorean jarraitzen dute, eta gainera Martinaren abizena euskal eran idazten hasi dira: hori bai albiste gozoa euskaltzaleontzat! ◂



Berba azoka

Alakatu
Alakan dagoena (gazteleraz, en *chaflán*).

Huntzorri
Huntza, huntzostoa, huntzadarra, luhuntza, zira, zuskeia.

Atalarri
Ateburua, atalburua.

Darakus
Erakusten du.

Listu-jario
Urtsu, listua dariola.

Gozotegi
Gozo-denda.

Gozogintza lantegi
Gozoak egiten diren tokia (gazteleraz, *obrador*).

Chobil
Chocolates Bilbaínos-en akronimoa.

Irasagar
Menbrilloa, kodoina.

Kausera
Bola formako opila (gazteleraz, *buñuelo*).

Azukre-koxkor
Azukre zati trinko txikia.

Arrautza-hariak
Arrautza-tiratxoekin egiten den gozoa (gazteleraz, *huevo hilado*).

Egundaino
Gaur egun arte.

Sokonusko
Euskal turroi baten izena: Mexikoko eskualde bat euskal grafiaz.

Zuen ekarpena ongarri zaigu: euskararenbaratzea@gmail.com

Igeriketa Ekainak 29

II. Arriluze Txallenge igeri-zeharkaldia egingo dute Getxon

Getxok Bizkaiko igeri zeharkaldi zaharrena formatu berriztatu batean hartuko du berriro ere: Arriluze Txallengea. Swim Camp Getxok antolatuta, ekainaren 29an ekingo diote berriro ere Bizkaiko ur irekien proba nagusiari. Abrako Zeharkaldi klasikoa, jatorriz Getxoko kostaldean lehiatu zena 1934an lehen aldiz, formatu berrituagaz eta % 100eko elkartasun arimagaz itzuliko da. Zeharkaldi solidarioa izango da, eta bildutako diru guztia zuzenean bideratuko da Leukodistrofien aurkako Europako Elkartera; gaixotasun hori duen lagun bat da probaren antolatzaile eta parte-hartzailetako bat. ◂

Eskupilota Txapeldunak

Bizkaiko Kopa irabazi du Urduliz-Berango Eskubaloia Taldeak

Urduliz-Berangoko neskak sasoi betean daude. Hori erakutsi zuen senior taldeak maiatzaren 25ean Mundakan jokatutako partidan. Bizkaiko Kopako txapeldun bilakatu ziren Basauriko Eskubaloi taldearen kontra jokatutako partidua irabazita. Jokalariek nabarmendu dute oso pozik daudela «sari garrantzitsuak» lortu dituztelako eta denboraldi osoan egindako lana islatu dutelako. Entrenatzen hasteko gogoz aparte, aurten lortutako emaitzak hobetu gura dituzte hurrengo denboraldian: lehenengo postuaren bila joango dira, Kopa berriz lortzeko eta «zilarrezko kategoriara igotzeko». ◂

Joko Olinpikoak Uribe Kostako delegazio zabala

Eskualdeko 12 kirolari Parisko Joko Olinpikoei begira daude daborduko

Uztailaren 26tik abuztuaren 11ra jokatuko dituzte Joko Olinpikoak Frantziako hiriburuan; Joko Paralinpikoak, aldiz, abuztuaren 28tik irailaren 8ra.



Joko Olinpikoak eta Paralinpikoak Parisen jokatuko dituzte udan.

Puntako kirolarien sorleku da Uribe Kosta, eta horren erakusgarri da aurten Parisen izango diren Joko Olinpiko eta Paralinpikoetarako eskualdeko delegazioa. Basque Teamen datuen arabera, lerrook idazterakoan, 12 kirolari leudeke maila gorenean lehiatzeko aukeran. Virginia Diaz eta Esther Briz arraunlariek ziurtatuta dute bidaia, baita Peio Gonzalez eta Gadea Moja skaterrak eta Higinio Rivero piraguistak ere. Aldiz, uneotan sailkatuta daude Jon Rahm golf-jokalaria, Mikel Erdozain boccia-jokalaria eta Jorge Pineda arraunlaria, baina oraindino amaitu gabe dagoen sailkapenaren arabera erabakiko da txartela jasoko duten ala ez. Bestalde, belar-hockeyan, euren taldea sailkatuta dagoen arren, deialdiaren arabera jakingo dute Chefo Basterrak eta Rafa Vilallongak Parisera joango diren; egoera berean daude Asier Garcia gurpildun-saskibaloilaria eta Xabier Lopez de Arostegi saskibaloilaria ere, azken hau bere taldea sailkatuz gero. ◂

HONTZA EXTREM
DENONTZAKO ABENTURA PARKEA
www.hontzaextrem.com

ZATOZ!
EZ DA EDOZEIN PAREKOA...
NATURALTASUNEZ
PAREGABEAK BAIZIK
633.468.947
Oleta bidea·OTXANDIO·BIZKAIA

Getxo Rugby taldea Iberdrola Ligara igoera

«Hasieratik izan dugu argi helburua mailaz igotzea zela, gogorra izan arren»

Denboraldi bikaina egin dute getxoztarrek, partida guztiak irabazita eta, horrela, lau urteren ostean, Iberdrola Ligara igotzeko lekua bereganatuta.

IKER RINCON MORENO ▶



Emakumeen senior taldea, talde-argazkian. © GETXO RUGBY

Esan, eta egin. Aurreikuspen guztiak bete dituzte Getxo Rugbyko emakumezkoen senior taldeko jokalariek, Cisnerosen aurkako finala (27-12) irabazi eta elitean murgiltzeko bidea amaituta.

Hasteko, zorionak Iberdrola Ligara igotzeko egindako ibilbideagatik. Zer balorazio egiten diozue denboraldiari? Mila esker! Denboraldiari balorazio positiboa egiten diogu. Egia esan, finala irabazi izanaren zapore gozoarekin gaude oraindik. Mailaz igotzeko helburua bete dugu, eta badirudi azken partidaren emaitzak urte biribila eklipsatu duela. Baina, orain, atzera begiratuta, argi dugu pozik egoteko emaitzak lortu ditugula urte osoan zehar.

Denboraldia hasi zenutenean, zuen burua maila gorenean ikusten zenuten? Denboraldiaren hasieran ez genuen gure burua maila gorenaren barruan ikusten oraindik. Bagenekien bertara heldu nahi genuela, eta Ohorezko Mailara igotzea gure helburuetako bat zen. Lau urte daramatzagu bide hau eraikitzen; iaz ere liga irabazi genuen, baita finalera heldu ere, baina helburua bidean geratu zen. Hasieratik argi izan dugu xedea mailaz igotzea zela, baina kontziente izan gara bide luzea eta lan handia geneukala aurretik.

Zelakoa izan da egindako ibilbidea urteotan? Polita. Duela lau urte DHB mailara igo ginen. Taldea kontsolidatu behar izan da, mailara egokitu eta mailaren eskakizunetara doitu. Lan asko dago atzean, baina azkenean lortu dugu helburua betetzea.

Balorazioa

«Askotasun uste dugu ez garela kontziente dugun potentzialaz; igoera honek gure burua pixka bat hobeto baloratzea egin beharko liguke»

Entrenamenduak

«Futbol-jokalariak taldekideekin entrenatu ahal badira, guk ere horretarako baimena beharko dugu»

Cisneros zen faboritoa mailaz igotzeko; aukari zaila izan da? Bai, iaz Ohorezko Mailatik jaitsi zen, eta erritmo biziz jolasten dute talde horretako jokalariek. Baina urte honetan hiru aldiz lehiatu gara haien kontra eta, gure sorpresarako, hiru partidak irabaztea lortu dugu. Askotan uste dugu ez garela kontziente dugun potentzialaz eta besteen azpian kokatzen dugula geure burua. Honek gure burua pixka bat hobeto baloratzea egin beharko liguke.

Zelakoa izan da herritarren babesa egindako bidean laguntzeko? Sinestezina, benetan. Urte osoan zehar izugarrizko babesa sentitu dugu herritarren partetik. Eta finalean, aldiz, kolosala izan da. Emakumeen kirolak eta kirol minoritario batek horrelako jendetza batu izana imajinaezina da. Fadurako harmaila guztia bete dugu, baita belodromo zein zelai ingurua ere. Ez dakit zenbat pertsona bilduko zen azken partidetan Faduran, baina taldea guztiz eskertuta dago, eta babestua sentitu da.


Etxeko lanak eginda dituzue maila gorenean lehiatzeko? Denboraldi gogorra aurreikusten dugu; etxeko lanak urte osoan zehar izango ditugu. Prestaketa fisikoak ezinbesteko garrantzia izango du. Urte gogorra izango dela badakigu, baina gure onena ematera goaz. ◀

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:

AURREKO SOLUZIOAK



Giltza

Mari Purtzilen altxorren kutxa zabaltzeko, giltzarrapoaren giltza behar da. Zein da? Aurkitu gura baduzu, formari erreparatu behar diozu.







Han eta hemen

Badira 20 gauza irudi bietan ageri direnak. Ea aurkitzen dituzun.



Zein da Uribe Kostako zure txokorik kutunena?



GABRIELA BATISTA
LEIOA

Hemengo hondartzak gustatzen zaizkit gehien; batez ere, Sopelakoak dira nire faboritoenak, oso politak direlako eta asko gustatzen zaidalako eguraldi ona dagoenean horietara joatea eta han eguna pasatzea. Zalantza barik, hondartzekin geratzen naiz.



DANIEL ARROYO
ALGORTA

Algortan bizi naizenez, agian Portu Zaharra da gehien gustatzen zaidana. Madrilen bizi izan naiz denbora batean, itsasorik gabe, eta, horregatik, konturatu naiz nire bizitzan itsasoa ikustea oso garrantzitsua dela. Gainera, txikitan hor inguruan ikasi nuen, beraz, Portu Zaharra esango nuke, bai.



MAITE MENENDEZ
ITZUBALTZETA/ROMO

Nire lekurik kutunena Arrigunaga dela esango nuke. Ordu asko ematen ditut hor; nire lagun batzuk hango taberna batean lan egiten dute, txakurrekin egoteko oso ondo dago eta, eguraldi ona dagoenean, beti joaten naiz. Getxon gehien gustatzen zaidan lekua da zalantza barik.



JULEN GARCIA
GETXO

Algortako Portu Zaharra, zalantzarik gabe. Ni Areetan bizi naiz, eta eguraldi ona dagoenean beti gustatzen zait Portu Zaharrera joatea, Ereagatik paseatzen eta hor zerbait hartzera. Klasiko bat iruditzen zait, oso polita eta ahal dudan guztietan joaten naiz horra.



INES GOÑI
GETXO

Esango nuke Gorliz eta Plentziako inguruak, asko gustatzen zaizkidalako eta oroitzapen onak ditudalako. Txikitatik han pasatzen ditut udak urtero eta hango haurtzaroko oroitzapen asko ditut. Azken finean, hondartzarekin eta txikitan bizitako oroitzapen onekin erlazionatzen dut inguru hori.



WILLIAM GUERRA
SOPELA

Ni Sopelakoa naiz eta bertoko hondartzak asko gustatzen zaizkit. Gehien gustatzen zaidana Barinatxe da; gainera, ni soroslea naizenez, Gorlizen egon arren, batzuetan aldaketak egiten ditugu eta ahal dudan guztietan hona etortzen naiz lan egitera edo egotera.



NELI GARCIA
SANTURTZI

Niri gehien gustatzen zaidan lekua Ereaga hondartza da. Ez naiz oso hondartza-zalea, baina asko gustatzen zait hara paseatzera joatea, oso leku polita delako eta ibiltzeko ere oso ondo dagoelako; gainera, hurbil bizi naizenez, niretzat oso erosoa da horra joatea eta ahal dudan guztietan hurbiltzen naiz.



SEAN TAYLOR
LEIOA

Ereaga hondartza esango nuke. Txakurrarekin korrika askotan joaten naiz bertara eta, hondartzak asko gustatzen zaizkidanez, Ereaga esango nuke, bai. Udan zein neguan joaten naiz: udan, hondartzara lasaitzera eta, neguan, txakurrarekin joateko gustatzen zait.

«Muga-porturik gurutzatuena da, imajina zenbat historia dagoen hemen»




IKER RINCON MORENO ▶

Bere bikotekideagaz hara bidaiatu ostean erabaki zuen Aitor Piñeiro algortarrak Tijuanan gelditzea. 12 urte igaro dira ordutik eta, dioenez, ez da damutzen erabakiaz, «garai hartan eta gaur egun Euskal Herrian izan ditzakedan lan-aukerek ez naute erakartzen». Mexiko eta AEB arteko mugako hiri hartako hainbat proiektutako Elikagai eta Edarien zuzendari eta chef exekutiboa da, eta oso gustura dago, ez baitu Getxora bueltatzeko asmorik: «Hemen gelditu naiz, kar-kar».

Aitortzen duenez, hiri horrek ospe txarra du, eta urte luzez aurreikuspen hori izan du inguru hartaz, bertara heldu zen arte, «egoera guztiz desberdin batekin egin bainuen topo». Tijuanara egokitzeko prozesua, baina, ezustekoz beteta izan zen, batez ere hizkuntzaren arloan. Hizkuntza nagusia gaztelania bada ere, Kaliforniako mugako tokiko adierazpenek eta ingelesaren ohiko erabilerak erronka berri bat ezarri zioten algortarrari, «hizkuntza berria dirudi». Hango gastronomia aberatsa eta askotarikoa da, baina takoak dira benetako izarrak. Edariari dagokionez, fruta zukuak, tekila, mezkala eta aski ezaguna den Guadalupeko Haraneko ardoa topa daitezke, «baita artisau-garagardo barietate amaigabea ere».

Tijuana etengabe hazten ari den hiri kosmopolita dela azpimarratzen du Aitorrek. Azken hamarkadan azpiegiturak eta aisialdirako zentroak izugarri garatu dira, eta museoak bisitatzea, mendi-ibiliez gozatzea eta bertako gastronomiaz gozatzea gomendatzen die bisitariei. Tijuanako hondartzak, bere itsas pasealekua ikur, ilunabar ikusgarriak ikusteko aukera eskaintzen du eta, noizbehinka, izurdeak ikusteko aukera, «adi egon behar da, hori bai!». Algortarra liluratu duena tijuanarren poza eta abegikortasuna izan da: «Oso erraza da lagunak egitea eta planak egitea». Gainera, Tijuanak historia aberatsa du, munduko muga-porturik gurutzatuena baita, eta, datu bitxi gisa, gogoratu du Caesar Cardinik han asmatu zuela Zesar entsalada, 1924an, eta oraindino ere Caesars jatetxean modu tradizionalean zerbitzatzen dela, «mahaian bertan eginda». ◀



Aitor Piñeiro Mendez


Nongoa
Algorta.

Adina
32 urte.

Zertan dabil
Lanean.

Noiz heldu zinen?
2012an.

Noiz arte bertan?
Bertan gelditu da.



Lurraldea
Mexiko.

Azalera
1.972.550 km².

Hiriburua
Mexiko Hiria.

Biztanleria
126.014.024 (2020).

Hizkuntzak
Gaztelania da hizkuntza ofiziala; hala ere, Herri Indigenen Hizkuntza Eskubideen Lege Nagusiaren arabera, 68 mintzaira indigena nazional daude, eta hedatuena nahuatla da, maiaren aurretik.

Moneta
Mexikoko pesoa.

Jon Gotzon Ugalde Gurruchaga DJ Bull

«Ez dut gustuko izar handiek sortzen duten halako fanatismoa»

TESTUA: **ANDER ZARRAGA**
ARGAZKIA: **DJ BULL** ▶

Defini ezazu zeure burua berba bitan. Alaia eta parrandazalea esango nuke.

Zein filmetan gustatuko litzaizuke protagonistaren papera egitea? Galdera zaila, ez dut nire burua aktore bezala ikusten. Baten bat egitekotan, Marx anaien edozein aukeratuko nuke; asko gustatzen zaizkit.

Kontatu dezakezun zure ametsetako bat? Talde famatu batean kontzertu bat ematea gustatuko litzaidake. Adibidez, Manu Chaorekin jotzea itzela izango zen.

Eguna ala gaua? Hasieran esan dizkizudan bi hitzekin argi geratzen dela uste dut: egunez bukatzen dut, baina nahiago dut gaua.

Parrandarik politena, non? Iruñean, sanferminetan, baita San Fermin Txikiton ere.

Kontzerturen batean gertatutako bitxikeriaren bat? Behin, Jesulin de Ubriqueri bezala, neska batek bularretakoa eman zidan, gaua bukatzean. Nahiko bitxia izan zen.

Non nahiko zenuke kontzertu bat eman? Edozein estadiotan. Katalana izanda, Bartzelonako estadio batean; hala ere, ez dut gustuko izar handiek sortzen duten halako fanatismoa.

Zer edo nor eramango zenuke irla isolatu batera? Musika ekipo indartsu bat eta nire bikotekidea.

Azkenaldian egin duzun erokeriaren bat? 10 ordu jarraian musika jartzen aritzea Errenteriako auzo bateko jaietan. Urtero egiten dudan erokeria da.

Zein berri nahiko zenuke irakurri biharko egunkarian? Euskal Herri libre batean bizi garela.

Euskal Herriko zure txokorik kuttunena? Iruñea. Nafarroa berezia da niretzat, eta Iruñea are gehiago.

Udan kontzertu asko izango dituzu? Bai, ekainean 16 emanaldi ditut, eta uztailean, 18; tartean, San Fermin-etan lau egunetan arituko naiz.

Uda gogorra izango da zuretzat. Bai... Negua lasaiagoa izaten da, baina udara begira mentalki prestatu behar dut. ◀



Laburrean. **Jon Gotzon Ugalde Gurruchaga Reusen (Katalunia) jaio zen 1974an, baina txiki-tikitatik bizi izan da Euskal Herrian. Hasieran, Tolosako taberna batean hasi zen musika jartzen, eta, 2000an DJ Bull izen artistikoa hartu zuenetik, jairik jai aritu da musika goizaldera arte jartzen ia atsedenik hartu gabe. Bera Euskal Herriko DJ bezala definitzen da eta jaietan abestiz abesti, giroaren eta eskatzen dizkioten kanten arabera joaten da musika jartzen. Reggaetoia «gorroto» du, baina, hala ere, bere emanaldietan sartzen du. Jaietako osagai klasiko bihurtu da DJ Bull, eta seguru uda honetan ere jairen batean baino gehiagotan arituko dela; momentuz, aurreratu digu Leioako sanjoanetan egongo dela.**

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa
Cuadernos Rubio, LH1-LH2

Udako oporretan ere txikienek eskolako ariketak gogora ditzaten, Cuadernos Rubio-ren eskutik, *Oporrak Euskaraz* bildumako koadernoak zozkatuko ditugu. Ez galdu aukera eta eman izena!



Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 30a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa
Izarrak eta haitza liburua

Karlos *Txapel* Aretxabaletaren *Izarrak eta haitza* liburuan Edurne Pasaban, Juanjo San Sebastian edota Pou anaiakaz izandako solasaldiak ageri dira, besteak beste. Galduko duzu? Parte hartu!



Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 30a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zozketa
BBK Karpineko sarrera bikoitza

Karrantzako bailaran dagoen BBK Karpin Fauna parkea bisitatzeko aukera izango duzu zozketa honetan izena emanez gero. Sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu eta zureak izan daitezke!



Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 30a (domeka) baino lehenago jakinarazi zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hemen: Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

“Jendea behar dut”

“Lana behar dut”

Eskolan laguntzeko, umeak edo nagusiak zaintzeko, begirale izateko udan, dendan lan egiteko, ostalaritzan... Oso erraza da! Argitaratu zure eskaintza.

www.beharsarea.eus

Euskera, lanerako aukera





Getxo bizi ezazu

beharsarea

ALKARBIDE

Bizkaia foru aldundia diputación foral